

2013ko maiatza | 126. zenbakia

ailkor!

txorierriko aldizkaria

Txuma Olagüe abesbatza,
25 urte musikaz beteak





SONDIKAKO JAIETAN DIBERTSIOA BAI!

SONDIKAKO



UDALA

Etorri eta
parte hartu

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 · 48150 Sondika - Bizkaia
Telefona: 94 453 14 57 · yedrainterflora@hotmail.com

Txorierri EL, 30
48150 SONDIKA

94 453 35 05
667 78 63 31

**PEÑA ATHLETIC
BETI HARROBIA**

TXORIERRI
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

karagardik gerta

AMOLKCLARITZA · TASAZIOA
ALOKATZEAK · ENKUALDATZEAK
SALERONKETAK
SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA

Gaufxori

Erremerterri kalea, 18
48150 SONDIKA

auto-escuela SONDIKA

Gidabaimena eskuratzeko izapideak
Irakaskuntza teorikoa, praktikoa eta ikus-entzunezkoa

Mateo Bidaurrezaga 2
Telefona: 94 471 00 10
48150 SONDIKA Bizkaia

Plaza Iturriondo, 2 (goia)
Telefona: 94 445 90 67
48007 Zurbaranbarri - Bilbo

Martinez Zalduendo Doktores

Mediku estomatologos
EHUko Odontologia irakaslea
Pamk EEUU Protesiak

Clínica Sondika
Dental

*1983tik hona zaintzen dugu zure bizi-irribarra

Protesiak implanten gainean
Ortodontziak
Periortodontziak

Goiri, 2
48150 Sondika Bizkaia
Tel.: 94 453 34 40
e-mail: ramonzalduendo2009@hotmail.com
www.euskalnet.net/sondikadental

ALZORA

Sondikako euskara elkarte

**NDOPASA
JAIETAN!**



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Jon Goikouria Larrabeiti, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Juan Antonio Trabudua, Juanjo Ortiz, Jesus Pedrero, Jabi Agirre, Ander Laso, Itsasne Zubiri, Jose Angel Mentxaka, Bes-torrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria



12 Garazi Hach Embarek



24 Sondikako San Joan jaiak



22 Literatura

- 4 Eritxia**
- 6 Laburrak eta albisteak**
- 11 Iruditan... Aurrekoetxe baserria**
- 12 Gurean izan da... Garazi Hach Embarek**
- 14 Gaztea eta... Aritz Elgueazabal, zine zuzendaria**
- 16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
- 18 Txuma Olagüe abesbatza, 25 urte**
- 24 Sondikako San Joan jaiak**
- 26 Literatura**
- 29 Zorionak!**
- 30 Alaitz Barrena, txirrindularia**
- 32 Azoka txikia, Derion**
- 34 Lagatzu Eguna**
- 35 Aikorrizketan... Euskararekin ala euskaraz bizi?**
- 36 Sukaldaritza**
- 37 Denborapasa**
- 38 Agenda**

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Aislamientos Derio

Tabikeak
Pladurrezko sabaia eta apalategiak
Sabai erregistragarriak
Isolamendu termiko eta akustikoa

Alaitz Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com



JUAN ANTONIO TRABUDUA
(ELA sindikatuko Txorierriko arduraduna)

Duela bost urte "piztutako" krisiak amaierarik ez duela dirudi, eta gero eta zulo sakonagoan sartuko gaituztela iragartzen dute politikarien asmoek.

Erreformek, arazoari irtenbidea eman beharrean, arazoan sakontzeko balio dute; ondasun gehien dutenei gero eta zerga gutxiago kobratzearen ondorioz, gastu publikoa gero eta txikiagoa da, behar sozialak bikoiztu badira ere; jende gutxiagok ordu gehiagoz eta gutxiago kobratuz lan egin dezan, pausu garrantzi-

tsuak eman dira; lan merkaturatzea gaitz eta lan merkatua utzi eta erretiroa hartzeko bidea gaitzago bihurtu dute; ustelkeria kasuak nonahi agertzen diren bitartean, herritarrak odolustu egiten dira hipoteka ordaindu ezinik... Eta guzti horren aurrean alternatibarik ez dagoela sinestarazi nahi digute. Europak, "merkatuek", Madrilék edo Gasteizék esanak betetzea dela, edo zeren aurretik, lehentasuna.

Argi dagoena da hala jarraituz gero, tragedia nagusituko dela gizartean: pobrezia, bazterketa soziala, gosea... Horregatik da beharrezkoa alternatibak eraikitzeko pausuak ematea. Kontua da posible dela beste balio batzuetan oinarritutako gizartea eraikitzea; badagoela alternatiba. Baina alternatibak ez dira berez sortu eta gauzatzen. Edozein landare lege, lur gozoan hazia erein, ureztatu, eguzki izpi indartsuetatik babestu eta maite-maite eginda loratuko da alternati-

ba ere. Bide horretan, baldintza egokiak sortzeko lan egin behar dugu; aliantzak egin, estrategiak finkatu eta boterean daudenen erabakiak aldarazteko, mobilitazio indartsuak sustatu.

Zentzu horretan, Txorierria ez da egungo errealtatean oasia; pobrezia bertan dugu eta tragedia ate joka. Bost urteren buruan eskualdeko langabe kopurua ia bikoiztu egin da eta 1.092 langabe ziren 2012. urte amaieran. Datuok lagungarri zaizkigu gure herrietan bizi den egoeraren aurrean haserrea dagoela sumatzeko. Eta gure bizilagunek, guk bezalaxe, aurrera segitzeko alternatiba beharra dutela ikusteko ere bai. Hori hala izanik, ezin gara besoak gurutzatuta gelditu. Segi dezagun gure egonezina plazaratzen, gure eskubiak aldarrikatzen eta alternatiba badagoela oihukatzen. Hori egin ezean, hazia haitz artera jaurtitzean gerizperik sortzen ez den bezala, ez baita ezer aldatuko.

IGO



INES SERRANO
(Filosofian lizentziatua)

Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpainak heldu da gurera, euskaraz irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko asmo garbia. Liburutegitik liburudendara. Plan ederra, dudarik gabe. Baina, bat-batean, ez zait edonolako kontua irudit. Irakurtzea, eta euskaraz irakurtzea. Izan ere, nola erakarri laguna literaturara mundu arin honetan? Ekintza ororen emaitzak arinak behar diren, dabilzan mezuak are arinagoak diren, etorkizuna bihar baino ez den munduan?

Eta euskaraz gainera, gure hizkuntza xumea, mintzakide urrikoa, balore eskasekoa nonbait, garai globalizatu

eta teknokratatik at, hiru, lau eta bost eledun unibertsoan, edozein bestelako hizkuntza gehiagotua lehenesten duten unibertsoan?

Euskaraz irakurtzeak aldrebeseko jarrera hautatzera garamatza, ezta? Mundu arina moteldu edo. Denbora hartu, trankil jarri, eta liburua lagun duzula prest egotea; kontatzen dizunari hadi egon, iradoki dizuna bizi, pentsarazi dizuna kontuan hartu, lagunekin konpartitu eta, batez ere, gure hizkuntza zaharrak eskaintzen dituen milaka unibertsoz gozatu, aukera amaigabea.

Ez da, ez, edonolako kontua. *Eingo al dogu?*

urdaitegia delicatessen
amalur
Urte, 14 - 48160 DERIO
94 612 19 55
www.amalurdario.com
info@amalurdario.com

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87
Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa
Urte 7, beheko
48160 DERIO (Bizkaia)
-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrekontua doan
-Especialitatea:
umeak

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781



Adrián López, Lau t'erdiko Txapelketaren irabazlea

Maiatzean, Bizkaiko Kluban Lau t'erdiko Txapelketa – Derioko Koparen finalak jokatu ziren Derioko pilotalekuan. Adrián López Larrabetzuko pilotaria nagusitu zen sub-22 kategorian, Izurieta-ri irabazita. Aipatu beharra dago, gainera, larrabetzuarrak GRAVN Lehiaketa ere irabazi duela. Lópezek Galdakaoko Kerman Galarza izan zuen bikote txapelketan, eta finalean Gipuzkoako Jaka-Tolosa bikotearen kontra aritu ziren.

Derion jokatu ziren beste partidei dagokienez, Arrankudiagako Arandia pilotariak Dimako Zapiko pilotariari irabazi zion kadete mailan; Gernikako Etxebarriak Leioako Uriberi, gazte mailan; eta

Usansoloko Asier Beitiak Ortuellako López Aldairi, nagusi kategorian. Sari-banaketako ekitaldian hauek hartu zuten parte: Lander Aiarza Derioko alkatea, Bizkaiko Eusko Pilota Federakuntzaren zuzendaritza-kideak, enpresa laguntzaileen ordezkariak eta Gorka Iraizoz Athleticeen atezaina. Antolatzaileek azaldu dutenez, txapelketaren finalak zein finalaurrekoak erabat arrakastatsuak izan ziren eta jendetza handia batu zen bertan. Besteak beste, kamisetak, plastikozko saskiak eta takoak egiteko tresnak zozketatu ziren finaletan. Partidak girotzeko lanetan Eskubi eta Xare Bizkaiko Pilota Federakuntzaren maskotak ibili ziren.

Ia 2.000 euro batu dituzte Bermeora bidaltzeko

Apirilaren 11n sutea izan zen Bermeoko alde zaharrean, eta horren ondorioz hiru eraikin eraitsi ziren eta 35 familiak utzi behar izan zuten euren etxea. Derioko lau elkarteek —Gure señeak, Odol argia, Txoriberri eta Sutondoan— ekintza bat antolatu zuten San Isidro jaien egitarauaren barruan, familia horiei euren elkartasuna adierazteko. Hala, txosna solidario bat ipini zuten maiatzaren 12an eta bertan taloak jarri zituzten salgai 2,50 eurotan. Jakinarazi digutenez, ia mila talo txistorrarekin saldu zituzten eta guztira 1.800 euro batu zuten. Txosna azoka-gunetik kanpo zegoen arren, bertaraino herritar asko hurbildu zirela azaldu digute antolatzaileek. "Herriaren erantzuna oso ona izan da. Hain ona, ezen txistor bila joan behar izan baikeen herriko harategi batera. Pozik gaude agertutako elkartasunarekin".



HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ama
taberna
le-zuola plaza, 9 - Leizor (Zamudio)
94 455 99 09

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212. Parke Teknologikoa
48170 Zamudio · Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37"N

www.gaminiz.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Cals. 517
COOP. CANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15



San Tomás jaiak, Zamudion

Ekainak 14, barikua

- 18:00: Bolanderak.
- 20:00: Idi-probak.
- 22:00: Saiheski, tripaki eta sardina jana.
- 22:30: Erromeria, Nakar taldearekin.

Ekainak 15, zapatua

- 16:00: Mus-arin txapelketa.
- 17:30: Umeentzako jolasak.
- 18:00: Tortilla txapelketa.
- 21:00: Tortillak aurkeztea.
- 21:30: Sariak banatzea.
- 23:00: Diskodantza, Dj batekin.
- 00:30: Jolas dibertigarriak.

Ekainak 16, domeka

- 09:00: Bost ermiten ibilbidea.
- Paella eta sukalki txapelketa.
- 13:00: Meza, ermitan.
- 13:30: Paellak eta sukalkiak aurkeztea.
- 18:00: Dantzen agerraldia, Hiru bat dantza taldearekin. Ostein, txapelketen sariak banatzea.
- 19:00: Trikitiku eskolaren emanaldia.

Ekainak 17, astelehena

- 12:00: Meza, ermitan.

Bitxia txakolina omenduko dute Lezamako azokan

Ekainaren 2an, Txakolinaren Eguna ospatuko da Lezaman. Azoka goizeko 11etatik arrastiko 3ak arte egongo da zabalik, eta 37 salmenta-postu ipiniko dira. Azokan, Lezamako sei txakolingilek eta Larrabetzuko txakolingile batek hartuko dute parte, eta 2012ko Bizkaiko Txakolinaren uztat dastatzeko aukera egongo da haien postuetan. Aurreko edizioetan bezala, txartelak jarriko dira salgai. Hala, azokaren kopa eta txakolina dastatzeko hiru txartel eskuratu ahal izango dira bost eurotan. Txakolinaz gainera, ohiko produktuak izango dira gainerako salmenta-postuetan, hala nola euskal pastela, or-

tuariak, gazta eta taloa. Era berean, Lezama saretzen elkarteak okela pintxoak salduko ditu 1,5 eurotan.

Bestalde, Udalak omenaldia egingo die Bitxia txakolinaren ekoizleei. Txakolin hori saritua izan da aurten *Catavinum World Wine and Spirits Competition* lehiaketan, eta iaz ere saria jaso zuen *International Wine Challenge* lehiaketan. Ekitaldia arrastiko ordu batean egingo da Udaltxeko arkupeetan. Aipatutakoez gainera, Kurutze dantza taldeko umeek emanaldi berezia eskainiko dute eguerdiko 12etan pilotalekuan, eta umeentzako tailerrak eta jokoak antolatuko dira.





luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (Ionja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia



hotela
jatetxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com



Ale-apaindegia
M^a Antonia Llodio
TXPI

Txanemiko elatidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Construcciones-Reformas

IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra



Arbolantxa kalea, 8 - 1.azk.
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Móvil: 695 70 33 12

OSKARBI
fotografoak

JOSEBA APEZETXEA

TALLER KALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL. 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: apeze@euskalnet.net

Iraultza taldeko neskak, igoeraren bila



Iraultza areto-futbol taldeak Bizkaia ordezkatzeko du Emakumezkoen Euskal Kopan. Txapelketa Galdakaoko Urrera kiroldegian egingo da ekainaren 2an, eta bertan zamudioztarrek Alegria (Araba) eta Azpeitiko (Gipuzkoa) taldeen kontra jokatzeko dute. Txapela irabazten duen taldea Estatuko Bigarren mailara igoko da. Iraultza taldeko neskek lurralde mailan jokatzeko dute eta aurten bigarren postuan bukatu dute Bizkaiko txapelketa. Ligako txapelduna Alegria taldea izan da. Talde hori arabarra izan arren, Bizkaian aritzen da, Araban ligarik ez dagoelako.

Igor Petralanda eta Ricardo Herbosa dira taldeko entrenatzaileak eta pozpozik agertu dira taldeak egin duen denboraldiarekin. "Denboraldi hasieran ez genuen horrelakorik espero. Lehen itzulian ez ginen fisikoki oso sendo ibili eta konfiantzarik gabe jokatu genuen. Hala ere, bigarrenen hobera egin genuen". Entrenatzaileen ustez, gako batzuk hartu behar dira kontuan taldeko errendimendua ona azaltzeko. "Azken momentuan etorri zitzaizkigun fitxaketek balio erantsia eman diote taldeari. Gainera, gol pilo bat sartu ditugu".

Lekue, Bertsolari Txapelketa Nagusian

Bertsotzaile elkartetik jakinarazi dutenez, Bertsolari Txapelketa Nagusiaren 16. edizioa irailaren 29an hasiko da Villabonan, eta abenduaren 15ean amaituko da BECen. Azken edizioak bezala, aurtengoak 14 saio izango ditu. Txapelketan 43 bertsolarik hartuko dute parte, eta Etxahun Lekue larrabetzuarra izango da haien artean.

Tximintx Eguna

Tximintx Derioko euskara elkarteak 10 urte bete ditu eta, urteurrena ospatzeko, haren kideek ekitaldi bi antolatu dituzte ekainean. Jakinarazi diguten bezala, hilabete osoan zehar elkartearen gaineko erakusketak ipiniko dute Kultur Birikan, eta ekainaren 14an "Derion be euskaraz gabiltz!" ekitaldia egingo dute. Hori Kultur Birikan ere izango da, 10:00etatik 22:00etara. "Urtean zehar Derion euskaraz gabiltzanok egun batean ikusgai jartzea du helburu", azaldu digute. Euskararen maratoian, besteak beste, hauek hartuko dute parte: eskola, institutua, berba-lagunak, Kukuke antzerki taldea eta Lainomendi dantza taldea. Horrezaz gainera, Tximintx elkarteak herriko nagusiei egin dizkieten elkarrizketak aurkeztuko dira ekitaldian, "Txorierri ezagutu" lehiaketaren finala egingo da, eta "Derioztarrak bost kontinenteetan" hitzaldia eskainiko da.

ESTILISTA EVA ARDINES
NESKA-MUTILEN ELKAPAINDEGIA
AmAr
Asteartea - Ostirala: 9etatik-15etara
Larunbata: 9etatik-14etara
Urribi Plaza, 1 - Behea 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 04 19: (Aurreko txanda)

ERREKA JAT ETXEA ONDO
Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak
Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75
BIDE-GORRI
Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

Garmendia ardoak
Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

Magalarte txakolina
Inaki 94 455 65 08
Jabi 94 452 14 31
75 cl.
10,75 % vol.
Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen



Ortu ekologikoak eta aisialdikoak

Derioko Udalak 32 ortu ekologiko zozketatu ditu herritarren artean. Ortuak Arteaga auzoan daude, eta haietako bakoitzak 60-80 metro karratuko azalera du. Besteak beste, aldagelak eta lanabesak gordetzeko etxolak ipini dituzte lursailetan, eta erabiltzaile bakoitzak 100 euroko kuota ordaindu beharko du urtero. Ortuetariko bat Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeari laga diote, gizarte-egoera ahuleko taldeek erabil dezaten. Proiektuaren helburuen artean hauek dira aipagarriak: naturari lotuta dauden jarduerak fisikoak eta mentalak egitea ahalbidetzen duten aisialdiko guneak bultzatzea, elikadura osasungarria sustatzea, jubilatutako langabeen artean okupazio-jarduerak bultzatzea, eta nekazaritza munduarekin dugun loturari eustea. Derioko Udalak lurretako esperientzia hartu du erdutat proiektua martxan jartzeko.

Lezamako hezkuntzaren historia jaso da dokumental batean

Maiatzaren 31n, 50+25 dokumentala aurkeztuko da Sondikako Kultura-etxean. Lana Gaizka Peñafielek egin du Lezamako eskolaren 25. urteurrenaren haritik, eta bertan jasotzen da nolako bilakaera izan duen herriko hezkuntzak Gerra Zibiletik orain arte. Horrezaz gainera, Lezamako bereizgarri batzuk ere aztertu ditu dokumentalean, haiek eragina izan dutelako herriko hezkuntzan, edo berarekin harreman zuzena izan dutelako. Bereizgarri horien artean, esate baterako, lehenengo sektorea eta euskara aipa ditzakegu.

Besteak beste, irakasle, ikasle eta gurasoen testigantzak batu ditu, dokumentala taxutzeko. Era berean, irakasleek eta gurasoen elkarrekin hainbat urtetan eskolaren eta ikasleen alde eginiko lana jaso du. Eskolak herriarekin izandako harremana ere islatu du lanean. Dokumentala ekainaren 14an aurkeztuko da Lezaman. Herritar guztiei zuzendutako ekitaldia izango da eta arrastiko 7etan egingo dute Kultura-aretoa.



Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak - Apopilo zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalien heziketa

Telefona:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA

KIMA
Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Gorietza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAI)

LOTERIA LEZAMA

BONOLOTOA
LOTERIA PRIMITIBOA
1-X-2
SARITZARRA
EUROMILIOIAK

GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN ENPRESARIK
ZERBITZUA, ENPRESENTZAT,
TABERNENTZAT, ETAB

ARETXALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAI) • TELEFONO/FAX: 94 455 64 87

GOIKO TABERNA *Taberna-jatetxea*
Emiliano

Mere bezelako antzerkietan • Egunero merke eta harte
Etxera eramaten dituzte • Jantzerietan eta ezkerretan
Itxialdi antzerkietan • Jantzerietan

8.º Gorietza, 1 • Tfno. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkai

LEJARRENE JATETXEA
Gorietza auzoa, 102 • LEZAMA • Tf. 94 455 65 48

GOXO-GOXO LOHITZUN

Aurretik zehaztutako
Ogile egutegia
Postalek antzerkietan

Gorietza, 77c
48196 Lezama
94 455 42 72
goxogoxolohitzun@hotmail.com

Troquenorreko langileek borrokari eusten diote



Une latzak dira Sondikako Troquenor enpresako langileentzat. Adierazi duteenez, enpresaren gainbeheraren arduradunak 27 milioi euroko zorra du eta lantegia-ekin geldituko da; langileak, berriz, kale-ara joango dira. Horren haritik, gogoratu behar da orain dela aste batzuk epaileak enpresa desjabetzeko agindua eman zuela, eta langileak hori eragotzi zutela, enpresan sartuta. "Jabeek oso kudeaketa txarra egin dute eta arazoak hasi ziren 2007. urtean. Ondorioz, gure kontrako neurriak hartu zituzten: enplegu-erregulazioko espedienteak irekitzea, soldatak eta lan-baldintzak murriztea, langile batzuk kaleratzea... Hartzekodunen konkurtsoa zabaldu zen, baina hura irregular-tasunez beteta dago. Adibidez, jabeek pabilioiaren jabetzari eutsi diote".

Aspaldi honetan prozesuak irtenbide argirik gabeko zirkulu batean murgilarazi dituela esan dute. "Badakigu legeek ez gaituztela langileok babesten, konkurtso-prozesuak ugazaben ondarea babes-teko diseinatuta daudela. Era berean, badakigu lantegi hau goiz edo berandu martxan ipiniko dutela; gu barik, noski". Adierazi dute nolanahi ere gogotik jarraituko dutela beren lanpostuak defendatzen.

Hala, enpresaren desjabetzea eragozteko itxialdiari eutsiko diote eta, horrezaz gainera, manifestaziora deitu zuten joan den ostiralean. "Dena dela, irtenbidea erakundeen eta, bereziki, Eusko jaurlaritzaren eskutik etorri behar dela uste dugu. Horregatik, dei egiten diogu modu aktiboan parte har dezan auzi honetan".

Larrabetzu 1937

Ekainean, 76 urte beteko dira tropa faxistek Burdinazko Gerrikoa apurtu zutela. Urteurrenaren haritik, Larrabetzun gerrako argazkiak ipini-ko dira ikusgai Anguleri kultura-etxean, ekainaren 17tik 23ra bitartean. Ekainaren 21ean, asturiar gudarostearen gaineko dokumentala eta hitzaldia eskainiko dira 19:00etan kultura-etxean. Bestalde, Udalbatzak instituzio-adierazpena onartuko du ekainaren 22an, eta 12:00etan omenaldia egingo diete Bolunburun lurperatutako milizianoei. Hiruretan bazkaria izango da eskolan. Azkenik, hurrengo egunean, 11:30ean, bisita gidatua egingo da herrian dauden gerrako aztarnetatik.

Kirol campusak

CD Sondikak 2000. urtetik 2005. urtera bitartean jaiotako umeei zuzendutako futbol campus bat antolatu du. Campusa ekainaren 25etik uztailaren 5era arte izango da. Sondikan erroldatuek 70 euro ordaindu beharko dute, eta gainontzekoek, 120 euro. Izena ematea ekainaren 3tik 7ra egin behar da klubaren bulegoan, 19:30etik 20:30era. Bestalde, Gorondagane gurasoen elkarteak saskibaloia campusa antolatu du uztailerako. Bertan Lehen Hezkuntzako bigarren mailatik seigarren mailara arteko ikasleek hartu ahal dute parte. Campusak 15 euro balio du eta izen ematea ekainaren 14ra arte egin daiteke gorondagane.basket@gmail.com helbidera mezu bat aginduta.

**MODA INFANTIL**
Tximeleta
Gernikako Arbola, 8
Telefonoa: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26
48160 DERIO
Bizkaia

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku
Zerbitzu Berriak
Logopedia
Podologia
Kiroprasajeta
**clínica dental ZAINDUZ**
hartz klinika
Txonemi etorbidea, 9 - Lortza | Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentazainduz.com | www.dentazainduz.com

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.
Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

**LIBRERÍA SONDIKA**
LIBURUDENDA
ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.
JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN
Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldirakariak, liburak,
papegintza eta eskulanak
Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Bilbo-Loiu autobus-lineak Derioraino luzatu du zerbitzua

Bilborako sarbideen birmoldaketaren ondorioz, aldaketak egon dira hiri-burua eta Loiu lotzen dituen autobus-linean. Hala, Juan Antonio Zunzunegui etorbideko eta Kale Nagusiko galekuak kendu dira eta orain autobusak San José plazan hasi eta amaitzen du ibilbidea. Bestalde, autobus-lineak ibilbidea luzatu eta zerbitzua Derioko kiroldegiraino ematen du. Ordutegi dagokienez, ez da aldaketarik izan.

Argazki lehiaketa eta surf ikastaroa

Aurreko urteetan bezala, Altxora Sondikako euskara elkarteak Argazki Lehiaketa antolatu du udari begira. Gaia "oporrak" da eta argazkiak uztailaren 1etik irailaren 6ra arte bidali ahal izango dira altzora.ee@gmail.com helbide elektronikora. Mezuan datu hauek zehaztu beharko dira: egilearen izen-abizenak, telefonoa eta helbide elektronikoa, eta argazkia non eta noiz atera den. Nahi izanez gero, argazkiaren izenburua ere idatz daiteke, edo aipamen bat berari buruz. Argazkiek jpg formatua eduki beharko dute eta parte hartzaile bakoitzak gehienez bi lan bidali ahal izango ditu. Irabazleak sari bi edukiko ditu aukeratzeko: lagun birentzako bazkaria edo landetxe batean gau bat ematea.

Bestalde, euskara elkarteak surf ikastaroa antolatu du irailaren bigarren astebururako. Ikastaroa familia osoarentzat da eta Sopelan emango da. Bazkideek 30 euro ordaindu beharko dute, eta bazkideak ez direnek, 45 euro. Izena uztailaren 19ra arte eman ahal izango da lehen aipatutako helbide elektronikora mezu bat bidaliz. Ikastaroa egin ahal izateko, gutxienez sei lagunek eman beharko dute izena, eta gehienez, 15 lagunek.

Ekidazu abesbatza, Mallorcan

t: Jabi Agirre / a: Ekidazu

Maiatzean, Ekidazu Lezamako abesbatza Mallorcan izan da, hango Udaberriko Koru Jaialdian parte hartzeko. Jaialdia VIII. aldiz egin da aurten Esglesia del Monestir de Santa María de la Real-ean, eta bertan 12 abesbatza inguru aritu dira. Ekidazu abesbatzak maiatzaren 11n, zapatuan, eskaini zuen emanaldia koru hauekin batera: Emitenia Korala (Bilbo), Cor d'Adults Escola de Música Ireneu Segarra eta Orfeo Mayurq. "Lezama eta bere ingurua da kantatzeko gure leku naturala, baina gustatzen zaigu noizbehinka beste lurralde batzuk bisitatzeko, pertsonen musikaren bidez elkarrekin erraz egiten dugulako bat".

Abesbatza lezamarrak errepertorio hau eskaini zuen: *Mendirik mendi* (S. Salaberri), *Saratarrak* (JM Gonzalez Bastida), *Lau teilatu* (arm. Josu Elberdin), *Maitia nun zira* (José Uruñuela), *Aldapeko* (Jesús Guridi) eta *Txanton Piperri* (Zapirain). Gai-

nera, Iratxe Ispizua abesbatzaren zuzendariak Emitenia Korala ere zuzendu zuen. "Inoiz entzundako txalo zaparradarik indartsuenaz eta luzeenaz gozatu genuen". Amaitzeko, *Les Illes* (Guillem d'Éfat) abestu zuten guztien artean.

Emanaldia baino lehen, Ekidazuko kideek eskola jaso zuten Mallorcako Musika Korolari buruz, Irina Caprilesen eskutik. Bestalde, eskolaz eta kontzertuaz aparte, irlatik turismoa egiteko denbora ere eduki zuten. Besteak beste, Palma, Formatux, Valldemossa eta Soller bisitatu zituzten, "eta ausartenek bainua ere hartu zuten". Katalanaren eta mallorkeraren arteko ezberdintasunak eta antzekotasunak ere izan zituzten hizpide. "Pili Gorbea abesbatzako presidenteak bikaintasunez zuzendu zuen joan-etorria. Ematen du Gorbeako landetan ibilia dela artaldeak jagoten".

Ekidazu 22 abeslarik osatzen dute eta probasiaoak eguenetan egiten dituzte, 19:30etik 21:00etara, Kultura-aretoan. Nahi duena bertaraino hurbil daiteke.



HORTZ KLINIKA



Idoia Zubieta

Osasun-zentrua & Hortz-eraketa

HORTZ-PLANTAK • ORTODONTZIA ESTETIKUA
HUTURAK ZIN HILDURA

Dr. Amelita kalea, 11 - 1. esk. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urbe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

RPS. 18410

 **OPTIKA IKUSLAN**

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94.452 28 18



TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragotti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



Aurrekoetxe

Argazkia Geldo auzoko Aurrekoetxe baserrian hartu dut, Zamudio. Atartea ikustean, ate txiki bat zabaldu zen nire oroimenean, eta nire haurtzaroko oroitzapen onenetariko batzuk azaldu ziren handik.

Argazkia eta testua: Jesus Pedrero



"Saharari buruz, itxaropentsu azaldu behar gara; bestela..."

Neska sahararra eta euskalduna. Zelan da posible hori?

Aita Saharako zelako, eta ama euskalduna, eta leku bietan bizi izan naizelako. Etxea ez da soilik odola, hazten zaren lekuak ere badu eragina. Ni sahararra eta euskalduna sentitzen naiz, baina modu ezberdin batean: beharbada, Saharako gatazkaren inguruan lan gehiago egin dut. Nire nebak, berriz, lotura handiagoa izan du hemengo gatazkarekin.

Aita Saharako enbaxadore ibili zen. Ez duzu inoiz pentsatu bere lanari jarraipena ematea?

Bai, pentsatu dut, baina horren alde negatiboa sufritu dugu etxean: aitak denbora luzea ematen zuen etxetik kanpo. Aitarik gabe hazi gara. Nik ez dut nahi horrelakorik berriro gertatzea nire familian. Gauzak Saharan beste era batean egongo balira, agian animatuko nintzateke, baina momentu honetan nik ez dut nire aitak sentitzen zuen beharra sentitzen. Dena dela, hitzaldiak eskaintzen ditut eta Saharako gatazkaren berri ematen dut.

Nolako jarrera dugu euskaldunok Sahararekin? Nahiko aldekoak gara eta atxikimendua adierazten diogu, ezta?

"Saharari atxikimendua adieraztea eta janaria bidaltzea ondo daude, baina hori ez da nahikoa"

GARAZI HACH EMBAREK | sahararra eta euskalduna

Aita sahararra zuen, eta ama, euskalduna. Horregatik, Garazi Hach Embarekek bere burua erdi-euskalduntzat eta erdi-saharartzat hartzen du. Txikitan desertuan bizi zen, baina Ormaiztegin, amaren herrian, hazi da. Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak lekuko ezin hobea aukeratu zuen, beraz, Sahararen egoeraren berri izateko.

Aita katue, alaba mixine

Gurutze Irizar erizain gipuzkoarra da. Hogeita lau urte zituela bere lana utzi eta Saharara abiatu zen. Bertan Mohamed Salem Hach Embarek ezagutu zuen, eta berekin maitemindu zen. Harreman horretatik jaio ziren Garazi eta Beñat. Garazik 12 urte eman zituen errefuxiatuen kanpamentuetan, baina gero amaren herrira, Ormaiztegiara joan zen bizitzera, ikasten jarraitu ahal izateko. Gaur egun, ingeles irakasle egiten du lan hizkuntza eskola batean, baina gertu-gertutik jarraitzen ditu Sahararen nondik norakoak. Izan ere, entzun nahi duten lekuetan salatzen du sahararrek pairatzen duten zapalkuntza, gaztelaniaz, euskaraz zein ingelesez.

Bai, oso aldekoak. Sahararrok argi dugu euskaldunek laguntza eman digutela, baina atxikimendua ezberdina izan beharko litzateke, bai hemen, bai edozein lekutan. Batzuetan atxikimendua adierazten da eta kito, hor bukatzen da dena. Pauso bat gehiago eman behar da. Janaria bidaltzea eta karitatea ondo daude, baina hori ez da nahikoa. Saharan gatazka politikoa dugu eta lan politikoa egin behar da, gatazkari amaiera emateko. Eta horretarako, beharbada, erakundeak sortu behar dira presioa egiteko, bai Espainiari, bai nazioarteari. Ea erreferendum ospetsu hori egiteko aukera dugun!

Berrogei urte pasa dira Marokok Sahara okupatu zuenetik. Zein da egoera gaur egun?

Oso zaila. Gizartea banatuta dago eta errepresio mota asko jasotzen ditugu: errefuxiatuen kanpamentuan eguneroko bizitza (janaria, botikak...) oso zaila da, eta gune okupatuetan daudenak erabat zapalduta bizi dira. Bertan, Nazio Batuen Erakundeak ebazpenak zabaldu ditu Marokoren kontra, baina horrek ez du ezertarako balio izan. Izan ere, marokoa-

Patxi KOOP.
BANATZAILE OFIZIALA

Mahon

Sakelako telefonoa: 667 67 73 00
NEINVER pol. - Etxezarri kalea, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
✉ faxa: 94 452 25 67
patxikoop@patxi.coop

bai

www.patxi.coop

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

BAR RAFI
ESPEZIALITATEA PINTXOAK

Rafael García Tejero

Oiz Kalea, 5
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

T: 94 406 08 08
Mobila: 607 406 613



Gatazka da txikitatik bizi eta pairatu izan duguna. Beraz, ezin dugu hori ahaztu. Zein da bidea? Politikoki jotzea ala armen bidea hartzea? Ni ez naiz ez erakunde baten kidea, ez ezer, eta gauzak negoziatzen badira, askoz hobeto. Hala ere, urte pilo bat daramagu bide horretan, eta ez dugu etekinik lortu. Hitz polit asko entzun ditugu, askok arrazoia eman digute, baina besterik ez.

Borroka armatua berreskuratzeko arriskurik ikusten duzu? Ona ala txarra izango litzateke?

Jende askok berriro hartu nahi ditu armak. Gurasoek borroka armatua egiten zuten eta gazteok horren berri eduki dugu. Baina garaia ezberdina da: gu herri txikia gara eta laguntzen digutenak ere bai. Maroko, ordea, boteretsua da.

Zer da gogorrago, askatasunik eza edo hango bizi-baldintzak?

Askatasunik eza. Zure herrira bueltatu ezin izatea; maite dituzunak bere herritik kanpo bizi izatea; gune okupatuetara joaten garenean atzeritarrak izango bagina moduan sentitzea... Oso gogorra da. Bizi-baldintzak txarrak dira, baina hasieratik kanpamenduetan bizi izan garenek baldintza txarragoak ezagutu ditugu bertan, eta, gaur egun, baldintzak askoz hobeak dira.

Zelan ikusten duzu etorkizuna?

Berde eta itxaropenarekin ikusi nahi-ko nuke. Benetan espero dut munduak gure egoeraren berri izatea, eta geuk ere gero eta gauza gehiago egitea gure herria askatzeko.

rek jarraitzen dute gu bortxatzen eta atxilotzen. Nahi dutena egiten dute.

Bake prozesua aspalditik dago martxan, baina momentuz, emaitzarik ez du ekarri. Baduzu itxaropenik?

Beti izan behar gara itxaropentsuak; bestela... Zaila da. Gizakiok, animaliak bezala, gauzetara ohitzen gara, zentzu onean zein txarrean. Egoera honetan piztu egin behar gara. Gauzak hasieran sentitzen genituen moduan berriro senti-

tzen hasi behar dugu, eta pausuak aurrera eman: ez dakit borroka armatua berreskuratzeko komeni zaigun ala ez, ez dakit zein izango den bidea, baina aldaketa nabarmenak egin behar ditugu, eta estrategia berri bati ekin. Argi dago.

Gazteek gatazka baino ez dute eza-gutu. Eurek zer uste dute? Borrokatze-ko prest daude (politikoki zein armen bidez) edo nekatuta daude eta Sahara-tik alde egin nahi dute?



UDAKO IKASTARO TRINKOAK

- Maila hobetzeko
- Azterketak prestatzeko
- DBH ikastaro bereziak
- Uztailan (goizez) eta irailean (arratsaldez)
- Izena emateko epea ekainaren 28ra arte

2013-2014 MATRIKULAZIO ESKAINTZA BEREZIA

- %5eko deskontua 13-14 ikasturteko matrikularen prezioan
- Ordainketa malguagoa, epe bat gehituta ohiko ordainketa epeei
- Lehentasuna taldeak eratzeke orduan
- Izena emateko epea ekainaren 21era arte

TXORIERRIKO AEK TXEPETXA EUSKALTEGIA • 944 543 967 / 607598794 • txepetxa@aek.org

"Gogoagaz baliabideakaz baino gauza gehiago egin daitezke"

t: Itxaso Marina

Zelan sortu zan *NUN* grabetako idea?

Euskal Herriaren gaineko istorioak kontetako orduan, ikusi-entzunezko arloan hutsune bat dagoala uste dogu, izan be beti kontau deuskuez iragan hurbilean gertatutako istorioak: ETA, Gerra Zibila, Karlistadak... Politikaz aparte, beste istorio batzuk be kontau behar dirala uste dogu, adibidea jartearren, gure inguruagaz dogun harremanak be beste herri batzuetatik bereizten gaituelako.

Eta zibilizazio aurreko garai bateraino joan zarie...

Bai, tribuak nagusi ziran garai bateraino. Jakin badakigu baskoiek ez ebela erromatarren aurka burukatu, eta, beraz, film laburrean, gure asmoa ez da izan bien arteko gerrarik adieraztea, baizik eta herrixka bateko jenteak haren inguruagaz eta natureagaz zelako hartuemonan eban kontetea, zelan moldatzen zan beste klan batzukaz, zelan ikusten eban mundua, zelan hartzen eban Erromatar Inperioaren hedapena... eta islatzea haren artean egon ahal ziran tirabirak, aliatuak izan arren edo bidea libre ixteko akordioa sinatu arren, arazoak beti egongo ziralako.

Erreferentzia mitologikoak be sartu dozuez pelikulan.

Gure ustez, ikus-entzumenezko arloan be ez da sakondu gure herriak magiaz euki dauan harremanean, ez kondairetan, ez izaki mitologikoetan... Eta istorioa hain gizarte primario baten kokatzek aukerea emon deusku, tribuak mitologiaren bidez zelan ulertzen dauan mundua adierazoteko.

"Gure helburua 50 minutuko sei kapituluk osatutako serie bat egitea da"

ARITZ ELGUEZABAL | zine zuzendaria

NUN film laburrak Ur baskoiaren historia kontaten dau, eta zelan hartzen daben berak eta bere herrixkako lagunek Erromatar Inperioa penintsulara ailegau izana. Aritz istorio honen gidoilaria eta zuzendaria da, eta aktore be ibili da bertan. Film laburra apirilean estreinau zan Bilbon.



Hizkuntzea be zaindu dozue, pelikulea latinez eta antxinako euskeraz-edo egin dozuelako.

Egia esan, italieraz grabau genduan, ez gendualako topau inor testuak latinera itzultzerantz ausartzen zanik. Baina filmazio ostean, soinua lantzen genbilzala, bikoizketa-beharrak egin behar ziran erabagia hartu genduan. Bikoizketaren ardura eza-gun bati emon geuntsan, eta, kasualidadez, harek baeban latin itzultzailea zan lagun bat. Testua itzultzerantz animau zan, eta, gainera, ñabardurak be sartu zituan, jeneralen artean berba egiten zan latina, adibidez, ez zalako soldaduen artean berba egiten zana. Euskerearen asuntua korapilatsuagoa izan zan, ez dagoalako XVII. mendea baino lehenagoko testurik. Orduan, bizkaieraz hartu genduan oinarritzat eta imajinau egin genduan garai hatan berba egin leiteken euskereaz.

Esan beharra dago film labur hau kapitulu pilotu bat be badala.

Gure helburua 50 minutuko sei kapituluk osatutako serie bat egitea da. *NUN* istorio handi horretako zati bat da eta ekoizpen-etxeetara erroteko asmoa dogu, ea baten bat animaten dan seriea ekoiztera. Oso baliabide gitxi euki dogu filmazioa egiteko orduan, ez dogu finantziaziorik izan, baina 20 minutuko lan duin bat egiteko gauza izan gara. Beharra ekoizpen-etxeetara erotean dogunean, horreek konturatzea gura dogu ia baliabide barik besteek egiten daben beharra egiteko gai garala, hareek legeaz ondo edo hobeto. Ekoizpen arrunt batek dauan presupuestoa emongo baleuskue, beraz, askoz hobeto egiteko gauza izango ginatkeela.



Hasieran, idea ero bat iruditu jaken batzuei, ezta? Anbizio handiko proiektua, baina baliabiderik ez...

Detaile asko zaindu behar ziran: arropak, attrezzoak, armadurak... Ezinezkoa iruditzen zan hasiera baten. Baina lagun bat eta biok hasi ginan aztertzen garai hatako armadurak zelangoak ziran, eta bururatu jakun kartoi prentsatu erabilia, kamara aurrean benetakoak emoten eben armadura bat eta ezpata bat egin geinkeala. Jenteak ikusi ebazanean, eretxiz aldatu zan.

NUN orain dala urte eta erdi grabau zenduen, zelan gogoratzen dozu filmazioa?

Dana nahiko xumea izan zan. Filmazioak zazpi egun iraun eban, eta, besteak beste, Artxandan, Fikan, Lezaman, Nafarroan –istorioa Nafarroako Pirinioetan kokatzen da- eta Nerbioi ibaiaren iturburuan grabau genduan. Batez be imajinazioa eta trukuak erabili behar izan genduzan, ez gendualako ezer: ez garabirik, ez steadycam kamararik... Bataila bat dago filmean eta ha filmetako bigarren unida-

de bat euki genduan, besterik ez. Sei lagun ibili ginan talde teknikoan eta ia dana aldi berean egin behar izan genduan: filmau, pertikea hartu... Gogoagaz baliabideakaz baino gauza gehiago egin daitezke.

Zenbat aktore ibili ziran filmazioan?

Testua eben 12 aktore eta 100 estra. Hareen artean, Derio eta Lezamako lagunak izan ziran. Eskerrak emon behar deusdaz, hasieratik oso jarrera ona adierazo dabelako. Klaseak eta guzti hartu ebezan garai hatan zelan burrukatzen zan ikasteko. Neu be saiatu nintzan aktoreak ondo zaintzen eta gustura sentiduarazoten, filmazio askotan izan nazalako eta badakidalako batzuetan aktoreei ez jakela merezi daben arretarik eskaintzen. Bai aktoreek, bai teknikariek musutruk egin eben behar.

NUN pantaila txikian ikusteko esperantzarik?

Bai, esperantzarik ez badago, ez dago ezer. NUN filmetako euki genduzan baldintzak eta esperientzia kontuan hartuta, nik uste dot emaitzea nahiko ona izan dala. Beharra ekoizpen-etxeetatik mugiten hasi gara dagoaneko, ea suerterik dagoan. Eta kapitulu pilotu bat izateaz gainera, film laburreko formatua be badauanek, horrek aukerea emoten deusku zine-jaialdietatik be mugitako.

Egilea

Aritzek 25 urte ditu eta Artxandan bizi da. Txorierrigaz oso lotura estua dau urteak daroazalako Sutondoan Derioko alkartearen antzerki taldeagaz kolaborazioak egiten. Bere lehenengo film laburra orain dala 10 urte egin eban, institutuan egoala. Batxilergo artistikoa ikasi eban eta antzerki eskolak hartu ebazan. Antzezpenari lotutako beharrak bilatzen hasi zan eta Arte Ederretako fakultadean emon eban ize-na. "Hamazortzi urte nituan eta oraindi-

no ez egoan krisirik. Nahiko behar egoan".

Gazteak hainbat film labur egin ditu. "Behar bat amaitutzat emoten dozunean, hori hobeto egin zeinkean arantzea dozu beti. Ez zara pozik harik eta beharrak profesionala emoten dauan arte. NUN hirugarren mailan gengozala grabau genduan eta handik hona beste zazpi film labur egin doguz. Izan be, uste dot beti egon behar dala mobimentuan, gauzak egiten, ezagutza eta esperientzia handiagoak izateko". NUN film laburra idatzi eta zuzentzeaz gainera, protagonista nagusiaren papera egin dau bertan.

Mankomunitateko web-orriaren gune berria

Euskararen txokoa

Telesailak eta pelikulak euskeraz
Series y películas en euskera

EGUNERATUTA: 2013-05-12 (Actualizado)

LAGUNTZA AYUDA marrazkiak@gmx.com Laguntzaileak (Colaboradores) Marrazki Baidunen Kantak (mp3 - 187) (Canciones de dibujos animados)

TELESAILAK Series (146)

PELIKULAK 3-13 urte Películas 3-13 años (351)

PELIKULAK 13 urte+ Películas +13 años (313)

DOKUMENTALAK Documentales (121)

Atalak falta badira, mesedez, abisatu. - Si faltan capítulos, por favor, avisa de ello.

Abeltxoroak Osoa (5 urte+)	Abere Taldea 20/47 (3 urte+)	Aita-Amabitxi Magikoak 57/126 (7 urte+)
Alex eta Alexis Osoa (5 urte+)	Amaigabeko Istoria Osoa (5 urte+)	Animalia Osoa (5 urte+)
Arturo Erregea Osoa (7 urte+)	Autobus Magikoa Osoa (5 urte+)	Avatar Osoa (7 urte+)

Guztira 10 interesguneetan multzokatu ditugu aukeratutako webgune guztiak. Taula honetan adibide batzuk jarri ditugun arren, une honetan guztira 60 sarbide aurki daitezke **Euskararen txokoa**an.

Beraz, **Euskararen txokora** sartu eta "trasteatzera" animatu nahi zaituztegu, horrela, aurrerantzean, ezin izango dugu esan interneten euskaraz dagoen eskaintza ezagutzen ez dugunik.

Bukatzeko, argi utzi nahi dugu hau ez dela aukeraketa itxi bat, gune berriak sortu ahala eguneratzen joango garen zerbait baizik, eta edozein herritarrek interesgarria izan daitekeen bestelako web-orriak ezagutuko balu, eskertuko genuke guri jakinaraztea: euskera@txorierri.eu.

*Guztira euskarari
lotutako 60 sarbide
aurki daitezke txokoa*

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak baliabide berriak jarri ditu txorierritarren eskura. Horiek horrela, maiatzetik aurrera Mankomunitateko web-orrian, eta epe laburrean Txorierriko udaletako web guneetan, kontsultatu ahalko dira euskarari lotuta dauden hainbat webgune interesgarri.

Denok dakigu interneten euskararen inguruko hainbat baliabide daudela. Baina askotan, momentu jakin batean behar dugun informazioa ez dugu erraz topatzen, ez dakigulako non kontsultatu. Eskaintza oso zabala den arren, oso saba-banatuta dago. Horrexegatik, Euskara Zerbitzutik pentsatu genuen oso lagungarria izan zitekeela herritarrentzako webgune interesgarrien aukeraketa bat egitea. Argi geneukan adin eta interes desberdinak kontuan hartu behar genituela, eta herritarrek modu erraz eta azkarrean topatzeko moduan eskaini behar genituela baliabide horiek.

Aukeratutako webguneak interesgune ezberdinetan sailkatu ditugu, izan ere seme-alabentzako euskarazko marrazki bizidunen bila dabilenak edo eta ordenagailua euskaraz jarri nahi duen gazteak, erraz aurkitu behar dute bilatzen duten hori.

INTERESGUNEAK	AURKI DAITEZKEEN WEBGUNEETAKO BATZUK
1.- Informatikako baliabideak	-Ortografia akatsak zuzentzeko -Ordenagailua euskaraz jartzeko
2.- Hiztegiak	-Euskarazko hiztegi guztien webgunea -Hiztegi terminologikoak, on line
3.- Gazteen txokoa	-SMS hiztegia -Gazteentzako atarietarako sarbidea
4.- Gurasoen txokoa	-Marrazki bizidunak eta filmak euskaraz -Pertsona-izenak euskaraz
5.- Euskara ikasteko txokoa	-EGA prestatzeko webgunea -Entzungiak eta irakurgaiak
6.- Euskara elkarteak	-Txorierriko euskara elkarteak
7.- Bizkaiera	-Testuak batueratik bizkaierara -Bizkaierazko zuzentzaile ortografikoa
8.- Merkataritza eta ostalaritza	-Menuak euskarara itzultzeko gunea -Ostalaritza hiztegia
9.- Leku-izenak euskaraz	-Euskal Herriko leku-izenak -Kale-izendegiak euskaraz
10.- Kirola	-Kirolak praktikatzen argibideak euskaraz -Saskibaloia eta eskubaloia hiztegiak



Berdintasunerako Plana

Emakumeek eta gizonek gizartean tradizioz izan duten zeregina nabarmen aldatzen ari da. Eta emakumeen eta gizonen artean benetakoa eta eraginkorra den berdintasuna lortzeko bidean, aldeko gizarte-aldaketak izan dira bizitza publikoaren eta pribatuaren hainbat arlotan. Hala ere, botere-harreman pertsonalen eta sozialen errealitatea asimetrikoa da, eta emakumeak, gizonekin alderatuta, desberdintasun egoeran daude.

Egoera hori aldatzeko, hau da, emakumeen eta gizonen arteko harremanen errealitate asimetrikoa aldatzeko, politika publikoak behar dira, desberdintasunak desagerraraztera bideratuta daudenak. Horregatik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betetzeko, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak Berdintasunerako I. Plana onetsi du.

Halako planek zelako egitura eduki behar duen Emakunde ezartzen du. Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak 2016ra arteko Berdintasunerako Plana egin du. Hurrengo lerrotan zertzelada batzuk emango ditugu horri buruz:

Gobernantzari buruzko atalean 22 ekintza jaso dira, eta haien xedea da genero ikuspegia Mankomunitateko sailletako eguneroko lanean sartzea. Helburua da sail guztiek argibideak izatea, desberdintasunak desagerrarazteko bidean hobetzeko.

Ahalduntzeari eta balioak aldatzea ri buruzko ardatza herritar guztiei, eta bereziki emakumeei, zuzendutako 14 ekintzak osatzen dute. Asmoa da kontzientzia sorraraztea norbanako zein talde mailan, betiere emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren inguruan.


*Besteak beste,
ahalduntzea eta
emakumeen aurkako
indarkeria batu
dira testuan*

Beste ardatz batek **antolaketa sozial erantzukidea** jorratzen du. Bertan azaltzen diren ekintzen bidez, kontziliazioa erraztu, eta emakumeen eta gizonen arteko erantzukidetasuna sustatu nahi da, arlo pribatuko zereginei dagokienez (nagusiak eta adingabeak zaintzea, etxe-ko lanak...).

Azken ardatzak **emakumeen aurkako indarkeria** du hizpide. Han 10 ekintza

proposatu dira, helburu hauek dutenak: indarkeriazkoak ez diren jokabideak garatzea, prebentzioa hobetzea, eta indarkeriaren biktimei eta haien seme-alabei arreta osoa bermatzea.

Xedea da Plana tresna erabilgarria izatea, Txorierriko emakumeen eta gizonen artean eraginkorra den benetako berdintasuna lortzeko. Plana Mankomunitatearen web-orrian dago eskuragarri. Edozein zalantzarik izanez gero, edo edozein ekarpenik zein iradokizunik egin nahi izanez gero, aukera dago berdintasun teknikariarekin harremanetan jartzeko.



TXORIERRIKO MANKOMUNITATEKO I. BERDINTASUNERAKO PLANA

GOBERNANTZA

1. ARDATZA.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA BALIOAK ALDATZEA

2. ARDATZA.

ANTOLAKETA SOZIAL ERANTZUKIDEA

3. ARDATZA.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA



Ahots bat, arima bat

TXUMA OLAGUE ABESBATZA

Badira hogeta bost urte Txuma Olagüe Sondikako abesbatzea sortu zala. Hogeta bost urte musikaz, soinuaz, aha-leginez, gogoz, ilusinoz... beteak. Indarrak batzeko urteak be izan dira. Gugaz errepasau ditue.

t: Itxaso Marina / a: I.M. eta T.O.A.

Abesbatzea 32 kidek osatzen dabe gaur egun, eta Santa Kurutze ermitan batu gara hareetako batzukaz. Hitzordura etorri dira, besteak beste, Pili, Nekane, Rosi, Valeri, Enrique, Jabier, Encarni eta Amaia; koruaren zuzendaria be, Paula, bertan dago. Urteurrenetan egin ohi dan moduan, abesbatzak eginiko lehenengo urratsak gogoratu doguz. Abeslari batzuk hasikeratik ibili dira bertan, eta, azaldu deuskuen moduan, gizarte eta kultura arloan herrian egoan kezka bati erantzuteko sortu zan korua. Baegozan dantza

talde bat, txistulari talde bat eta umeen koru bat, baina hareetatik aparte ez egoan garai hatan Sondikan beste aukerarik aisialdiaren arloan. Testuinguru horretan, 1988. urtean, jaio zan Sondikako Gaztedia taldea.

Talde barriaren eginkizunak bi ziran: alde batetik, euskal musika korala bultzatzea eta, bestetik, urteera soziokulturalak antolatzea. Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntasunagaz, talde koralari itxurea emoten joan ziran eta, azkenean, ahots mistoen abesbatzea osatzera animau ziran. Jesus Maria "Txuma" Olagüe, nahiz eta Erandiogoikoan ibili ababe,

Sondikan euki eban parrokia lehenengoz, eta taldekideek berarengana jo eban, abesbatzea zuzentzeko eskatzera. Abadeak atsegin handiz onartu eban eskaria. "Guk ez genkian ezer musikaren gainean; abesteko zaletasuna baino ez geunkan. Eta Txumagaz habanerak abesten ikasi genduan, abesti herrikoiak... eta euskerazko abesti asko. Berbak gaztelaniara itzultzen euskuzan, egileak zer adierazo gura eban ulertu gengian eta kantuz ondo jaubetu geintezan. Probasaioak benetan bizi zituan: begiak itxi eta "Hau bai ederral" esaten eban".

Zalez osatua

Sondikako abesbatzak bere lehenengo zuzendariaren izena hartu eban izentzat. Korukideek aitatu daben moduan, musikea maitatzen irakatsi eutsen Txumak. "Garrasika abesten genduan, baina pozik baino pozago". Inoz bere bila joan behar izan eban Erandiogoikora, probasiora agertzen ez zalako. Karta-jokoan

topaten eben, probasaioaz ahaztuta. Baina pasadizu horreetaz aparte, Txumak bere azken egunera arte bete eban abesbatzeagaz hartutako konpromisoa. "Hil baino lehen, taldea ez ixteko esan euskun, beti egongo zala baten bat guri irakasteko". Abadea 1995. urtean hil zan. Hurrengo urteetan Inma Fonsecak, Arantza Azkorak eta Alberto Carrerak hartu eben batutea, eta 2002. urtetik hona, Paula Perezek.

Aurreko lerroetan aitatu dan moduan, abesbatzeak lehenengo urratsak emon zituanean, haren kideek gitxi ekien musikearen eta abesteko tekniken inguruan. "Baina badaukagu orain maila ona, e!". Izan be, 25 urtean asko ikasi dabe, "batez be, oraingo zuzendariagaz, beharra gogor eginarazoten deuskulako". "Zalez osoturiko taldea izan arren, oso maila ona dauka; baita herrialdeko beste abesbatza batzuz kaz alderatuta be. Ikasteko daukien gaitasunak liluratu egiten nau, ikasitakoa buruan gordeteko gaitasunak, zelan abesten daben... Oso pozik nago", ganeratu dau zuzendariak. "Gaur egun garana guztion beharraren emaitzea da: zuzendariarena eta gurea".

*Korua herrian gizarte
eta kultura arloan
egoan kezka bati
erantzuteko sortu zan*

*Korukideek gitxi ekien
musika arloan eta
Txumak ha maitatzen
irakatsi eutsen*

*Koruak eta bertako
kideek parte-hartze
aktiboa daukie
herriko bizitza
soziokulturalean*

Abesbatzearen oraingo egoerea bizi daben moduan gogoratzen ditue hasiera-ko urteak: ilusinoz. Probasaioak erretiraduen kluba egon zan lekuan egiten zitueta handik parrokiaren lokaletara joan ziran. "Lokalak ez egozan egoera onean: baegoan hotza, hezetasuna... eta akustikea be ez zan ona. Baina ez euskun ardura. Ermitara orain dala zazpi urte etorri ginan eta hau beste gauza bat da. Baldintza hobekak daukaguz hemen. Gainera, neguan hotz handia egin dauenean, kultura-etxean egin doguz probasaioak".

Anfitrionak

Korua sortu zanetik parte-hartze aktiboa euki dabe herriko bizitza soziokulturalean. Halan, deitu deutseen leku guztietara eroan ditue euren ahotsa eta musikea: Santa Ageda, hainbat inaugurazino... Era berean, kontzertuak antolatu ditue eta beste herri batzuetako abesbatzak konbidatu ditue Sondikara. "Baita Idahoko koru bat be. Biran egozan Bizkaitik, eta emonaldi baten topau ginan eurakaz. Herrira etorri ziran eta oso esperientzia polita izan zan". Bizkaiko Abesbatzen

**Beti dago
lehen aldi bat
edozertarako...**

Honetarako, hartarako... badakizu.
Eta askoz gauza gehiagotarako ere bai;
erosketa supermerkatuara joan gabe egiteko,
adibidez. Iritsi zaizu EROSKI online
estreinatzeko unea.
Eta lehen aldia duzula ospatzeko,

10€

oparituko dizkizugu online egindako
lehendabiziko erosketan.

EROSKI online Supermerkatuan 80 €-tik
gorako eskaerarako balio du.

eroski.es

EROSKI online
zurekin

Eguna be Sondikan egin zan eta 2.700 korukide batu ziran bertan. Txuma Olagüe abesbatzea anfitrioi ezin hobea izan da topaketa horreetan guztietan.

Sondikako mugetatik kanpo be eskini ditue emonaldiak eta, beste batzuen artean, Errioxan, Ziortzako kolegiatan, Erriberrin, Gipuzkoako hainbat herritan eta Llanesen izan dira. Atzerrira joateko gonbidapenak be jaso ditue, baina honegaitik edo hagaitik ezin izan ditue onartu. Inoz egin beharko daben gauzea da.

Abesbatzeak badaukaz urtean zehar hitzordu finko batzuk: Txumaren oroime-nezko kontzertua, Udabarriko kontzertuak, Txorierriko Gabon-kanten Jaialdia eta Begoñako basilikan egiten dan Bizkai-ko Abesbatzen Astea. "Azken hori, beharbada, ilusino handiagoagaz prestaten dogun ekintzea da. Eta arreta handiago-gaz. Han parte hartu ahal izateko, epaimahaiak aurreko urtean emondako puntuazinoa hartzen da kontuan, eta gu emaitzarik onenak izaten dituen abesbatzeta-riko bat izaten gara, bost urtean han egon garalako jarraian". Esandakoez aparte, abesbatzea ekintza ezbardin bat antola-



tzen saiatzen da urtero, "aire freskoa dala-ko".

Eleizea beteta

Probasaioak astean hiru ordutan egi-ten ditue, eta, kontzertua eskini behar ba-dabe, ordu gehiago sartzen ditue. Entzu-

leei jagokenez, esan deuskue orain herri-ko eleizea beteten dala, baina hasieran oso jente gitxi etorten zala kontzertuak entzuten. "Paula gugaz dagoanetik, abes-batzak beste itxura bat hartu dau eta kon-tzertuetara jente gehiago etorten da. Egunduko ilusinoa egiten deusku horrek".

Zugandik gertu gaituzu Zu ere gertu behar zaitugu

TOKIKOMeko hedabideak gertu-gertukoak gaituzu. Zure inguruan gertatzen dena kontatzen dizugu. Zure hizkuntzan. Zure erara.

Lan ederra da eta, ondo egiten jarraitzeko, zu ere ondoan behar zaitugu. Makina bat erataria lagundu ahal diguzu: berriak emanez, albisteak idatziz, harpidedun edo bazkide eginez...

Gertu zaude? Idatzi gertu@tokikom.com helbidera eta hitz egingo dugu!

TOKIKOM

TOKIKO
KOMUNIKABIDEEN
BATERAGUNEA

Hirinet.net

Berton

Bilbo Hiria irratia

Prest!

UK

Ukberri.net

Aikor

Aikor.com

Anboto

Anboto.org

Goiena Papera

Goiena.net

Goiena telebista

Pil-pilean

Plaentxia.com

Barren

Elgoibarren.net

Baleike

Baleike.com

Erlo telebista

Uztarria

Uztarria.com

Goierri telebista

Galtzaundi

Galtzaundi.com

28 kanala

Karkara

Karkara.com

Antxeta irratia

Hernaniko Kronika

Kronika.net

Noaua!

Noaua.com

Txintxarri

Txintxarri.info

Alurri

Alurri.com

Ttipi-ttapa

Ttipi.net

Xaloe telebista

Mallope

Xorroxin irratia

Guaixe

Guaixe.net

Euskal Herria irratia

*Bizkaiko Abesbatzen
Astean, Begoñan,
bost urte jarraian
hartu dabe parte*

*Hareen erreperitorioa
oso zabala da
eta batez be
euskal folklorea
lantzen dabe*

Gutariko askok edo gehienok erlijino-agaz eta antxinako konposizinoakaz lotzen dogu musika korala. Horregaitik, korukideen eretxiz, oso inportantea da erreperitorioagaz asmatea, entzuleak erakartzeko. "Jenteari erritmoa eta mobimentua daukiezan abestiak gustetan jakoz, eta gauza barriak egin daitezala". Txuma Olagüe abesbatzearen erreperitorioa oso zabala da, barrokotik gure garaietara. "Gospela abesten dogu, espiritualak, habanera... baina batez be euskal folklorea eta oraingo konpositoreen beharra lantzen doguz, oso inportantea dalako obra modernoak ateratea. Gainera, oso konpositore onak daukaguz berton".

Azaldu deuskuen moduan, kontzertu bakoitzak bere berezitasunak daukaz eta eskini behar daben ikuskizun motaren arabera, abesti batzuk edo beste batzuk aukeratzen ditue. "Esate baterako, ospakizun baten parte hartu behar badogu, energia handia daukien abestiak aukeratzten doguz". Dana dala, ikuskizuna prestatako orduan, entzule guztiengan pentsetan dabe eta erreperitorioaren barruan daretarik sartzen saiatzen dira. "Horren haritik, gustauko litxakigu gure emonaldieta-
ra lagun gehiago etortea, gazte gehiago, eta gure beharra ezagutu eiel". Eskari hau egin daben arren, eskerrak emon gura deutseez sondikoztar guztiei, "beti sentiduten doguzalako hareen babesa eta laguntasuna".

Abesbatzea 48 urtetik 87 urtera bitarteko 32 gizon-emakumek osotzen dabe. Euskeraz, gaztelaniaz, ingelesez eta lati-



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Larabide Heziketa eta Bigarren Hezikuntzarako Ikastetxea

Unitzaga Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DEIRO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

**ATE IREKIEN
JARDUNALDIAK**

(18.30etatik aurrera)

Apirilaren 16an
Maiatzaren 2an
Ekainaren 4an

BATXILERGOA

- Zientziak eta Teknologia

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazioko Teknikaria

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Teknikaria
- Produktzioa Programatzeko Teknikaria
- Automatizazioa eta Informatikako Sistemetakoa Teknikaria
- Salmenten eta Merkataritza esparruen Kudeaketako Teknikaria
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Teknikaria



nez abesten dabe eta hareen ahotsen arteko orekea perfektua da. "Hasi ginanean, 18 lagun inguru ginan, eta 40 lagun izatera be heldu gara. Bolada batzuk izan dira jente gitxi euki doguzanak, baina inoz ez dogu pentsau korua bertan behe-
ra ixtea". Korukideen eretxiz, abesbatzek orokorrean eukiten daben arazo nagusia da gazteek ez dabela halako egitasmoetan parte hartzeko interesik. Halan, aiatu dabe lehen baegozala umeek osoturiko koru asko, eta ohikoa zala musikeagaz zerikusia eukien ikasketak edo eskolaz kanpoko ekintzak egitea. "Orain badagoz beste zaletasun eta lehenasun batzuk. "Deia zabaldu gura deutsegu sondikoztar guztiei, euren adina edozein izanda be, abesbatzan parte hartzen animau daitez-
zan. Ikusi daien abesbatza baten abestea ez dala zerbait tristea, guztiz kontrakoa baino".

Esperientzia aberasgarria

Dana hobetu daitekean arren, euren indarguneak ilusinoa eta zaletasuna dirala dinoe. "Gainera, gure arteko giroa oso ona da. Oso ondo egiten da behar ber-

*Abesbatzea 48 urtetik
87 urtera bitarteko
32 gizon-emakumek
osotzen dabe*

*Disko bat
grabetako idea
aspaldian
dabe buruan*

ton, begirune handia deusagu alkarri. Esperientzia erabat aberasgarria da maila pertsonalean". Txorierriko beste abesbatzakaz be badabe oso hartu-emon ona eta ekintza baten edo bestean parte hart-
zera konbidatzen baditue, ez dabe zalantzarik eukiten, eta hara joaten dira.

Autortu deuskue Udaletik jasoten daben laguntzeagaz eta bazkideek egiten daben ekarpenagaz moldatu egiten dirala, baina uste dabe instituzinoek oro har ahalegin handiagoa egin beharko leukiela kultura arloan. Etorkizunari begira badaukie ilusino pilo bat: atzerrira bidaiaren bat egitea, beste herrialde batzuetako abesbatzak ezagutzeko eta euren musikea bertara erotea; eta disko bat grabatea. "Azken hori buruan aspalditik daukagun ideia da. Diskoaren xehetasunak badaukaguz, zeintzuk izango diran diskoa osotuko daben abestiak... Baina honegaitik edo h-
gaitik grabazinoa atzeratzen joan gara... Eta, jakina, diru-laguntzea beharko geun-
ke diskoa egin ahal izateko... Ea inoz amesa egia bihurtzen dan!".

Alkarrizketea abesbatzearen hasikere-
raren gainean berba egiten hasi gara, lehenengo urratsei errepasoa emoten. Eta amaitzeko, korukideek abesbatzatik pasau diran lagunak ekarri ditue gogora, bizirik dagozanak zein aspaldian itxi gindueza-
nak. "Eta batez be berba batzuk euki gura doguz Andrés Mendiolarentzat. Abesbat-
zea dan guztia berari esker dalako".

Urteurrena ospatzeko ekitaldiak

Txuma Olagüe abesbatzak lau kontzertu berezi antolatu ditu bere 25. urteurrenaren haritik. Lehenengo apirilaren 27an emon eben Area-
tzako bandeagaz batera. "Ikusgarria izan zan eta jenteak oso pozik urten eban aretotik". Beste hirurak hurrengo hilabeteetan eskiniko ditue.

Halan, ekainaren 1ean abesbatzearen sortzailearen oroimenezko kontzertua emongo dabe, arrastiko 8etan, eleizan. "Olagüe behe-ahotsen taldeak, Pentagrama soinu alkarreak eta Gorantaileak dantza taldeak be hartuko dabe parte bertan". Era berean, azaroaren 22an, emonaldi berezi bat eskiniko dabe eta ekitaldira joateko gonbidape-
na zuzendari eta korukide ohi guztiei egingo deutsee.

Azken kontzertua abenduaren 28an izango da, Txorierriko Gabon-kanten jaialdiaren barruan. Izan be, hori prestetako ardura Sondika-
ko abesbatzeak eukiko dau aurtan.

"Urteurrena ilusino handiz prestetan gabilz, eta espero dogu sondikoztarrak eta txorierritarrek kontzertuetara etortea eta gure beharra gustukoa izatea".



HILEKO ESKAINTZAK

Mitxine, 6, behea -SONDIKA- 94 471 16 39

CENTRO DENTAL TXORIERRI

RPS: 475/98



*Inplanteak
Estetika-tratamenduak
Ekainean-uztailean*

%10_{eko}
deskontua

Goitioltza, 59 -LEZAMA- 94 455 51 00

KIMA LANDARAK

*50 € baino gehiago
gastatzen baduzu*

%5_{eko}
deskontua



Gernikako arbola, 8 -DERIO- 94 454 14 35

TXIMELETA



%10_{eko}
deskontua

*umeentzako kamisetak
16 neurrira arte*

Justo Ajuria, 2 -SONDIKA- 94 471 12 82

INMOBILIARIA TXORIERRI



375.000
eurotik aurrera

*3 etxebizitza
famiabakar:
350 m²-ko lorategia
4 logela, 3 bainu, txokoa
terraza, sotoa, garajea*

Arbolantxa, 5 -ZAMUDIO- 94 452 28 18

OPTIKA IKUSLAN

RPS: 184/10



*Kalitate handiko eguzkitako
betaurrekoetan (outlet-a).
1836+A1:2007 araua
betetzen dute*

%40_{ko}
deskontua



Parte-hartze handiagoa

Sua eta jai-giroa nagusi izango dira herrian ekainaren 21etik 24ra arte

a: Juanjo Ortiz

Jai-batzordetik azaldu deuskuen moduan, aurreko urteetako formatua hartu dabe kontuan jai-egitaraua diseinetako orduan. Izan be, erantzun ona daukien ekintzak dira eta hareetako batzuk, gainera, derrigorrean antolatu behar dira, herritarrek halan eskatzen dabelako. "Edozelan be, azpimarratu gurako geunke aurtten, lehenengo aldiz, alkarte edo talde batzuek ekarpena egin deusiela jai-egitarauari, eta ekitaldiak antolatu dituela haren barruan".

Ekainaren 21ean, barikuan, Lantegi Batuak-ek *flashmob* bat egingo dau, eta herriko kultura- eta kirol-alkarteek herri bazkaria antolatu dabe zapaturako. Beste alde batetik, herriko dendariak, ostalariak eta zerbitzu sektoreko profesionalak indarrak batzen dabilz alkarte bat osatzeko. Alkartearen eginkizun nagusia Sondi-

kako merkataritza birbiztea izango da eta horretarako hainbat ekintza jarriko ditue martxan. Hareetako bat San Joan jaietan bertan egingo dabe. Landan puxikak askatuko ditue eta hareen barruan eskaintza bereziak egongo dira, herrita-

rrek herriko saltokietan erabili daiezan. Alkarteek, beraz, parte-hartze aktiboa- goa eukiko dabe aurtengo jaietan.

Pentagrama soinu alkarteak bere saioa egunean eskiniko dauen arren, jaiet barikuan emongo jake hasikerea.

*Flashmob bat egingo da
eta merkataritza arloko
eskaintzak dituen
puxikak askatuko dira*



Kultura eta kirol alkarteek herri bazkaria antolatu dabe zapaturako

Saihestuezina da gero eta sakonagoa dan krisiaren gainean berba egitea, eta Sondikako jai-batzordeak be haren eragina nabaritzen dau urtero. "Dana dala, ahaleginak egiten doguz herritarrek ahalik eta gitxien igarri degioen. Jaiek irauten daben lau egunetan errutinez ahaztu dai-tezan eta ondo pasau daien". Nahiz eta aurrekontua gero eta estuagoa izan, jai-batzordeak beste behin be lortu dau adin guztietako herritarrei zuzendutako ekin-tza sorta zabala antolatzea.

Su garbitzailearen inguruan

Besteak beste, jolasak, apar jaia eta mago baten emonaldia egongo dira umeentzat, eta gazteek pil-pilean dagozan taldeen musikaz gozau ahal izango dabe. Mandoilek eta Canteca de Macao taldeek eta Oihan Vegak soinu jarriko deusie zapatu gauari. Horrezaz gainera, erromeria izango da barikuan eta domekan. "Ahaleginik handiena musika arloan egiten dogu, ziur asko".

Gastronomiak be lekua eukiko dau jaietan: tortilla, sukalkia, gaztaia dastatzea... Eta txapelketak egingo dira: pinturea, musa... Era berean, dantzen agerraldiak egongo dira eta txistulariek be ur-tengo dabe kalejiran. Baina ekitaldi guztien artean, bereziena zaindariaren egu-nean, su garbitzailearen inguruan, egin-go dabena izango da, ziur asko. "Jaietan giro polita egotea espero dogu, jentek parte hartu daiala eta gozau daiala. Sondikoztarrek zein honaino hurreratzin di-ranek giro ona topauko dabe, baita guz-tiei zuzendutako ekintzak be".



Jai-egitaraua

Ekainak 20, eguena

–19:30: Pentagrama kultura-alkartearen emonaldia, Kultura-etxean.

Ekainak 21, barikua

–13:30: *Flashmoba*, Lantegi Batuak-ek antolatua.

–15:30-17:30: Haur-parkea, Gorondagane guraso-alkarteak antolatua.

–17:30-19:30: Diskofestea, Dj Pacogaz, Gorondaganeraren eskutik.

–20:30: Txupinazoa.

–21:00: Tortilla lehiaketeta.

–23:30: Erromeria, Honat taldeagaz.

–03:00: Dj bat.

Ekainak 22, zapatua

–09:00: Aire zabaleko pintura lehiaketa.

–11:00-14:30: Haur-parkea.

–12:30: Kalejirea, Elaiak txistu taldeagaz.

–13:00: Apar-jaia.

–13:30: Idiazabal gaztaia dastatzea.

–14:30: Herri bazkaria, kultura- eta kirol-alkarteek antolatua.

–18:00: Pintura lehiaketako sariak emotea, Udaletxean.

–18:30: Balkoi Apainduen Lehiaketako sariak emotea.

–19:30: Dantzen agerraldia, Gorantzai-leak dantza taldearen eskutik.

–20:30: Txarangea.

–23:00: Suak.

–23:30: Kontzertuak: Mandoilek eta Canteca de Macao.

–02:00: Dj Oihan Vega.

Ekainak 23, domekea.

San Joan gaua

–12:00-14:00: Zurezko jokoak.

–14:30: Sukalkia.

–16:30: Mus txapelketeta.

–18:00: Dantzen agerraldia, Gorantzai-leak dantza taldearen eskutik.

–20:30: "Txartelak aidean" ekitaldia, Dendarien alkarteak antolatua.

–21:00: Txixi-burruntzia.

–21:00: Berbenea, Izargi taldeagaz.

–23:30: San Joan sua.

–00:30: Berbenea, Izargi taldeagaz.

Ekainak 24, astelehena

–11:30: Kalejirea, Elaiak txistu taldeagaz.

–12:00-15:00: Fanfarrea.

–12:30: Mezea eta aureskua.

–13:30: Kopaua, jubiladuentzat.

–18:00: Oliver magoa.

–19:30: Gorritiren animaliak.

–21:00: Azken trakea.

IRATXO
gozategia
lortu pertsonalizatuak
trufak
leialak
pastelak
pastak
Mikel Zurate, 2 - 3. lorja • Sondika, 48130 • 94 643 89 19

Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA
Sabino Arana, 3 lorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

pro audio
SOINUEN ADITUAK
Txarlem et., 15
48150 Sondika BIZKAIA
944 533 375
www.proaudiosondika.com
josi@proaudiosondika.com
Copilot XTRO
radar-detektagailua
159,95 €


Euskal kulturgintza, kale gorrian

Garai txarrak lirikarako
Golpes bajos taldeak
1983an idatzitako kanta
bat da. Literaturiako anto-
latzaileek be uste dabe ba-
dirala garai gatzak lirikara-
ko, eta horregaitik, “Kale
gorrian” aukeratu dabe
lelotzat aurtengo edizino-
rako. Euskera hutsez egi-
ten dan literaturari buruz-
ko Euskal Herriko azoka
bakarra bosgarren aldiz
egingo da Larrabetzun,
maiatzaren 31tik ekaina-
ren 2ra bitartean.

t: Gaizka Eguzkitza

Hainbat talde dabil alkarlanean Litera-
tura antolatzeko: Literatura Eskola, Arreki-
kili, Hori Bai, Larrabetzuko Udala, Gupide
eta Larrabetzuko liburutegia. Gotzon Ba-
randiaran antolatzaileetarikoa bat da, eta,
esan deuskun moduan, “aurten eguraldi
ona egiten badau, kalean egin gura doguz
ekitaldiak”. Literatura inoz baino presente-
ago egongo da kalean; kale gorrian, leloak
dinoen moduan. “Erakunde publikoek kul-
turea denpora-pasa hutsa izatea gura
dabe, baina guk uste dogu hori baino
askoz gehiago izan beharko litzatekeela:
kulturak denporea pasetako balio behar
dau, jakina, baina baita sentiduteko be,
gogoetak egiteko, konpartitzeko, eztabai-
datzeko... Eta horretarako, kulturea kalean
egon behar da, herritarren eskura”.

Gotzonen eretxiz, erakunde publikoek
ez dabe euskal kultura behar moduan
zaintzen, ezta Literatura be, eta horren-
gaitik “kale gorrian” sentiduten dira. “Urte-
ro-urtero erakunde publikoetara jotzen
dogu diru eske, eta gero eta gitxiago emo-
ten deuskue. Izapide pilo bat bete behar
izan doguz, diru-laguntza sistema horre-
tan sartzeko, eta horrek buruko min itzelak



ekarten deuskuz. Gure ustez, laguntza
gehiago behar da Literatura moduko eki-
taldi bat antolatzeko. Izan be, euskal kul-
turan inbertsinoa egitea izango litzateke,
Literatura dalako euskera hutsean egiten
dan euskal literaturari buruzko ekitaldi
bakarra Euskal Herrian. Antza danez, di-
rua badago Bilbao Basket taldearentzat,
baina ez guretzat. Hori iraingarria da, bai
horixe! Beraz, aurten ez deutsegu ezertxo
be eskatu”.

Krisiak, oster, ez dau kikildu antola-
tzaileek urtero egiten daben euskal kul-

turgintzaren aldeko apustua. Are gitxia-
go. Halan, Literaturiak bat egingo dau
Topaguneak sustatutako “Irakurri, gozatu
eta oparitu” kanpaineagaz, Txorierriko
euskera alkarteek egin daben moduan.
Horrek irakurketea sustatzea eta euskere-
aren erabilera gozagarria bultzatzea ditu
helburu, eta ekainaren 30era arte iraungo
dau. “Jentea hasi da irakurtzen, deskontu-
txeak hartzen... Eta txekiei esker, Lite-
raturian be merkeago lortu ahal izango
dira liburu batzuk. Pozik gagoz, kanpai-
nearen inguruan mobimentua dagoalako

Egitaraua

Maiatzak 31, barikua

- 19:00: *Publikoari gorroto*. Antzezlan.
- 22:30: Goienetxe anaiak. Musikea.

Ekainak 1, zapatua

- 11:00: Irakurle taldea. Idazleak bertan egonda, honako liburuak hartuko dira hizpide: *Intemperies (babes bila)*, Lourdes Oñederra; *Kristalezko begi bat*, Miren Agur Meabe; *Inurrien hiztegia*, Mariasun Landa; *Txartel bat (des)herrira*, Garazi Goia; *Alkasoroko benta*, Mikel Taberna.
- 12:00-14:00: Liburuen aurkezpenak.
- 14:30: Bazkaria.
- 17:00: *Hormako paper horia* liburu irakurtzea.
- 17:30: *Urrezko sagarra*. Josu Kamara. Umeentzako ipuin kontalaria.
- 18:30: *Alkartasun basatia* errezitaldia.
- 22:00: *Ez haut abandonatuko* emonaldia (Bide Ertzean + Jon Benito).
- 22:00: Anari. Musikea.

Ekainak 2, domeka

- 11:00: "Egungo itzulpengintzaren erronkak: Zelan erantzun egun euskal literaturan doguzan beharrazanei?" solasaldia.
- 12:00-14:00: Liburuen aurkezpenak.
- 17:00: Baxuko taldearen errezitaldia (Poesia + musika).
- 18:00: Josu Bergara eta Pau Alabajos bakarlariak.

LITERATURIATXUA

- Ekainaren 1ean eta 2an ume zein gazteentzat hainbat ekitaldi.

herrian. Azken baten, geuk be irakurtzeko ohitua sustatu gura dogu".

Edizino honetan, igaz beste ekitaldi egongo dira, baina aurten denpora-tarte handiagoak egongo dira ekitaldien artean. "Jenteak esan deusku batzuetan saio batetik bestera arnasa hartzeko denporarik be ez dagoala". Azokaren eszenatokiak berberak izango dira: herriko plaza, Anguleri Kultur Etxea eta Hori Bai gazte-txea. Diru-laguntzarik eza dala-eta, gazte-txean egingo diran ekitaldietan sarrera kobrauko da, aurreko urteetan egin ez

"Kulturea denbora-pasa baino zerbait gehiago da, eta herritarren eskura egon behar da, kalean"

"Familia osoak hona etorri eta ondo pasetako aukerea eukiko dau"

den moduan. "Holan, artistek euren behar-raren truke dirua jaso ahal izango dabe". Prezioak ekintzen arabera izango dira; halanda be, gehienez sei euro kobrauko da.

Horrezaz gainera, aurtengo Literaturiak hainbat nobedade ekarriko ditu. "Aurreko urteetan, zapatu goizean, Euskal Herriko irakurle taldeetako kide batzuk biltzen genduzan Larrabetzun, gogoeta egiteko. Aurten, oster, urtean zehar irakurketa taldeetan egiten doguna erakutsi gura dogu. Horretarako, bost liburu aukeratu doguz, eta hareen inguruko solasaldiak egingo doguz herriko plazako bost txokotan. Ekitaldia zabalik dago gura dauanarentzat. Egileak be bertan egongo dira". Hausnarketea egiteko gunea domekan irekiko da, "Egungo itzulpengintzaren erronkak: Zelan erantzun egun euskal literaturan ditugun beharrazanei?" solasaldian, alegia.

Karparik ez

Bestalde, aurten ez da karparik ipiniko, eta, ondorioz, liburu azoka Andra Mari kalean egingo da. Han dagozan lonja bitan liburu-denda bat irudikatuko da: bat tak Verdes-Atxirika izango dau izena; besteak, Isaac López de Mendizabal. "Biak oso garrantzitsuak izan ziran euskal literaturan, eta horregaz keinu bat egin gura deusegu lehengo liburu-dendei eta euren jaubeei. Antxina saltzaileek liburu guztiak ezagutzen zituen eta eroslearen gustuen arabera emoten zituen aholkuak".

Aitatutakoak nobedade bakarrak izango ez diran arren, Literaturiak betiko ari-mari eutsiko deus. Urtero legez, idazle-



Pelukeria Estetika
94 455 81 44
Anguleri 2, beheko Larrabetzu-Bizkaia




Miguel Angel Lekue, garraiolaria
Larrabetzu
656 786 744 94 455 80 20



URAS
Estetika eta masajea
Alta Pabli Ugalde, 14 beheko
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)



FRUTAK BARAZKIAK
Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel
Gaztelumendi, 3 - beheko 48195 Larrabetzu 94 455 89 19



SARRIKOLA OGITEGIA
Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta
Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



Anarik kontzertu zoragarria eskini eban orain dala urte bi.



Pau Alabajos katalanez arituko da.

“Larrabetzukoek jakin badakie ekainaren lehenengo asteburuan Literatura dagoala”

ek eta irakurleek aurrez aurre egoteko aukerea eukiko dabe. Antolatzaileek egitarau oparoa prestatu dabe, bai nagusiei, bai umeei zuzenduta. “Familia osoak hona etorri eta ondo pasetako aukerea eukiko dau”, berretsi dau Gotzonek. Aurreko edizinoetan gertatu dan moduan, Larrabetzura bertara joan ezin danak interneten bidez jarraitu ahal izango dau azoka, www.literaturia.org webgunean.

Literaturian liburuak ez dira protagonista bakarrak. Izan be, kontzertuak eta antzezlanak be egongo dira. Besteak beste, Goienetxe anaia, Bide Ertzean taldea eta Jon Benito, eta Anari arituko dira. “Goienetxe anaiek rap emonaldia eskainiko dabe. Hareetako bat bertsolaria da, eta bestea, idazlea, eta hartuemon handia dabe ahozko eta idatzizko literatureagaz. Anari orain dala urte bi etorri zan hona, eta aho zabalik itxi ginduzan. Aurtentzen barriro etortzeko eskatu deusagu; ea emonaldi gogoangarri hori errepikaten dauan”. Bestetik, Pau Alabajos bakarlariak

katalanez abestuko dau. Antzerkiari jago-konez, barikuan, Xabier Mendigurenen lan batean oinarritutako *Publikoari gorroto* antzezlanak ongi etorria emongo deus azokeari. Eta zapatuan, Josu Karmarak *Urrezko sagarra* ipuina kontauko deusie umeei.

Hitzordu finkatua

Bost urte pasau dira lehenengo Literatura bultzatu zanetik, eta, Gotzonen ustez, hitzordua guztiz finkatuta dago herrian. “Bai, larrabetzukoek jakin badakie ekainaren lehenengo asteburuan

Literaturia dagoala. Ildo honeri jarraituz, lagungarria izan da azken urte eta erdian herrian egin dan kultur bilgunea. Han alkarrekin alkarri emoten deusagu bako-txaren programaren barri, eta agendak bateratzen doguz. Herri ikuspuntua emoten deusagu kultureari, eta alkarlana sustatzen dogu”. Eta herrian ez eze, kanpoan be atxikimendua jasoten dau azokak, euskal literatura munduan ibiltentzantzat (idazleak, irakurleak, argitale-txeak...) erreferentzia baita. “Bidea apurka-apurka egin dogu, baina sendo. Bakarra da Literatura”.

lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com
J.R. Galdona Madariaga
BI-515

Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak

servicio de urgencias 24h
94 455 56 19 Aretxalde, 21bis 48196 Lezama

ZORIONAK!



Oso ondo Amalur, jarraitu horrela eta zorionak zure hamargarren urtebetetzean, gurasoen partez.



Zorionak Zamudioko "Benjamin A" taldeari. Denboraldi itzela egin duzue! Eskerrik asko entrenatzaileei. Zuen gurasoak.



ZORIONAK TXAPELDUNAK!!! Oso urte polita egin duzuelako, merezita duzue!!!



Zorionak Naia, gure nahia. Familiaren partetik



Zure umea jaio berri da; zure arrebak urteak bete ditu; Zure lehengusina ezkondu egin da... Momentu ederrak... Ospatu txorierritar guztiekin! Eta maite dituzunak ustekabeen harrapatu!

BIDALI ZURE ARGAZKIAK

- Argazki txikia: 15 euro
- Argazki handia: 25 euro

Aikor! lagunentzat %20ko deskontua

Argazkia eta testua:

- Hilaren 15a baino lehen agindu
- aikortxori@aikor.com helbidera

"Zoriontsua naiz bizikletaren gainean"

ALAITZ BARRENA | txirrindularia

Titan Desert lasterketa Marokoko desertuan egiten da, eta txirrindulariek 600 kilometro egiten dituzte sei egunean. Rubén Glera zamudioztarrak iaz hartu zuen parte han, eta aurten Alaitz Barrena lezamarraren txanda izan da. Alaitz kirolari peto-petoa da eta garaipentzat hartzen du hara joatea eta lasterketa bukatzea.

t: Gaizka Eguzkitza / a: G.E. eta A.B.

Zelan bururatu zitzaizun Titan Desert lasterketara joatea?

Rubén Glerak eta nirekin mendiko bizikletaz ibiltzen diren batzuek animatu ninduten eta hazia jarri zuten. Egia esan, hasiera batean nik ez nuen oso argi ikus-



ten. Niri mendiko bizikletaz ibiltzea gustatzen zait, baina zalea baino ez naiz, astean behin irteeraren bat egiten duena, baina ez 100 kilometroko sei etapa egiteko ohitura duena. Azkenean, erdi txan-txetan esan nuen parte hartu nahi nuela eta kideek nik jakin barik apuntatu ninduten.

Eta Marokora abiatu zinen...

Ez. Polar enpresak antolatzen duen zozketan parte hartu nuen eta Bartzelonan egiten dituzten sailkapen-probetan aritzeko aukeratu ninduten. Eta lortu egin nuen sailkatzea. Polar enpresak eta bere babesleek ordaindu zizkidaten bidaia eta materiala.

Entrenamendu berezirik egin ze-nuen?

Bai. Hilabete bi faltan nituen Maroko aldera joateko, eta gogor entrenatu behar izan nuen. Entrenatzaile bat hartu nuen eta Titan lasterketako parte-hartzaile batzuei deitu nien, ahalik eta informazio gehien biltzeko. Lehenengo hilabete-an izugarri kostatu zitzaidan entrenatzea, baina bigarrenean sendoago ibili nintzen.

Zelan lasterketa?

Oso gogorra izan da. Ibilbidea zaila zen eta batez ere haizeak gogor jotzen



zuen. Nik ondo ikusi dut neure burua, eta pozik nago nire errendimenduarekin. Gainera, hemen entrenatzen duzunean gertatzen ez den moduan, erabat kontzentratuta zaude lasterketan, bizikleta baino ez duzu buruan. Hemen, aldiz, hurrengo egunean lana duzu...

Zer da ekarri duzun onena?

Nire buruari erakutsi diot gai naizela desertuan 600 kilometro bizikletaz egiteko. Batzuetan buruak dio: "gehiagorik ez"; gorputzak, ordea, aurrera egiten du. Lasterketak erakutsi dit lana gogor egiten duzunean, edozein gauza lortu ahal duzula. Esaerak esaten duen moduan: non gogoia, han zangoa. Era berean, lasterketaren antolaketa goraipatu nahiko nuke, txirrindulariok eskura izan dugulako dena: ibilaldian jeepak gertu daude

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Elegabeko ordutegia
Sabino Arana 1-3, SONDIKA

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala
Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31

Txorierri
Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodriguez Mella
Mitxine 5, beheko - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larrialdia: 670 985 885



*“Lasterketak erakutsi
dit lana gogor
egiten duzuenean,
edozein gauza
lortu ahal duzula”*

eta anoa-postu asko ipintzen dituzte. Eta kanpamenduak itzelak dira eta oso baldintza duinak dituzte: medikuak, komunak, duxak, nahi beste janari... Eguna bukatzen denean, etaparen laburpena egiten dizute, irudiek eta argazkiek osatua. Eta hurrengo egunean zer izango duzun ere jakinarazten dizute.

Garaipentzat hartzen duzu Titan lasterketara joatea eta hura bukatzea?

Bai horixe. Parte-hartzaile batzuk txirrindulari profesionalak dira, baina ni zalea baino ez naiz. Lasterketan ez nintzen inoiz onenen artean ibili, eta zein postutan bukatu nuen ere ez dakit. Marokon zaudela ez zara konturatzen zer lortu duzun, baina etxean egonda benetan estimatzen dut esperientzia.

Baduzu Titan lasterketara itzultzeko asmorik?

Momentuz ez. Lasterketa gustatu egin zait, baina beste leku batzuk ezagutu nahi ditut. Dena dela, esaten da lasterketa berezia dela eta, drogak moduan, menpekotasuna sortzen duela. Hau da, behin joaten dena berriro joango dela. Auskalo zer egingo dudan datorren urtean!

Normalean, emakumezko gutxiagok hartzen dute parte lasterketetan gizonezkoek baino. Arazorik izan duzu inoiz emakumezkoa izateagatik?

Ez, Titan lasterketan ez dago bereizketarik. Are gehiago, txirrindularien artean oso giro polita dago eta guztiok gaude elkarri laguntzeko prest. Horrek indarra ematen dizu aurrera egiteko, erronka gainditzeko laguntzen dizu. Jendea harritu egiten da emakumezkoak bizikleta gainean ikusten dituztenean, baina besterik ez. Zergatik daude emakumezko gutxiago? Auskalo! Kirol gogorra da eta benetan gustatu behar zaizu. Ni zoriontsua naiz bizikleta gainean, mendian. Gainera, emakumezkoak oso lanpetuta gabiltza: lana, umeak, familia... Dena dela, gero eta gehiago gara.

Korrikalaria

Alaitzek 38 urte ditu eta esportazio enpresa batean egiten du lan. Korrika egitea “betidanik” gustatu zaio, baina 30 urte zituela hasi zen bizikletaz ibiltzen. Berehala konturatu zen maila ona zuela eta hainbat martxatan hartu du parte. “Nik zale-tasuntzat hartzen dut eta primeran pasatzen dut lasterketetan”. Neska lezamarrari bizikletaz ibiltzea eta korrika egitea gustatzen zaizkio; ez da harritzekoa, beraz, Alaitzek dualoiak ere egitea.

Kirolaria Lezamako Zorribike taldeko kidea da, eta eurekin ibiltzen da bizikletaz, mendiz mendi. “Herriko lagunak dira. Denboraren poderioz, taldea sendotu egin da: hasieran jaiak zirela-eta antolatzen genuen mendi martxa bat, gaur egun opena dena, hau da, profesional mailako lehiaketa, eta bizitasuna ematen dio herriari, kanpoko jende asko etortzen delako”.

Brocante-tik azoka txikira



t/a: Bestorrene

Txoriberri Derioko kultur elkarteak azoka txikia antolatu du ekainaren 9rako. Azoka Sollube kalean eta inguruko kaleetan kokatuko dute, 10:00etatik 14:30era. "Ideia hauxe da: etxean ditugun eta erabiltzen ez ditugun gauzak hartu eta azokara eraman, han salgai jartzeko, oparitzeko edo beste gauza batzuen truke aldatzeko. Bakoitzak nahi duen sistema erabil dezake, eta azokara edozein gauza eraman daiteke, hala nola altzariak, automobilen bolantea, arropa edo bizikleta bat", azaldu digute antolatzaileek.

Orotara 70 leku edo gune atonduko dira eta parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru leku hartu ahaliko ditu. Leku bakoitzak metro bi edukiko du eta hiru euro balio izango du. Azokan edozein pertsonak har dezake parte eta izena emateko, telefono zenbaki hauetarikoa batera deitu behar da: 630 55 02 16 eta 695 70 22 02.

Txoriberri elkarteak 2006. urtean antolatu zuen lehendabizikoz azoka. "Biziklapena eta berrerabiltzea bultzatzea dugu helburu. Gauzak zakarrontzira bota beharrean, merke saldu, besteren batek erabili ahal ditzan". Esan diguten moduan, azoka txikia oso ekintza arrakastatsua da eta Derioko mugak gainditu ditu. "Gasteiztik ere hurbildu dira azokara". Hala ere, aipatu digute oraindik badaudela aurreiritziak mota honetako ekintzen inguruan. "Jendea irakasten zaio topikoak apurtzea, besteek bigarren eskukoak diren

*Ahetzeko azokara
hegoaldeko lagunak
hurbiltzen dira gauzak
erostera, gero hemengo
merkatuetan saltzeko*

edo oso merkeak diren gauzak erosten ikus ditzatela, gauza horiek saldu... Guk beldur hori gainditu nahi dugu, eta azoka txikia ekintza arrunta bihurtu. Gainera, gurea bezalako azokak ohikoak dira Europako hainbat herrialdetan". Krisiari aurre egiteko bidetxoa ere izan daiteke. "Erabil-

tzen ez dugunari etekina atera eta diru apur bat lortu ahal badugu, ba, ondo baino hobeto".

Arrunta European

Pirinioak pasatu eta Europa osoan bigarren eskuko produktuen inguruan dagoen kultura guztiz ezberdina da. Iparraldeko edozein herritan aurki daitezke *brocante*-ak, zeinetan bigarren eskuko hainbat produktu saldu eta erosten baitira. Beste kultura bat da: hemen zaborrera botatzen dena berrerabili egiten da han.

Aipatutako moduko azokak oso erakargarriak dira Santiago de Domingo derioztarrantzat, eta berak ezagutzen dituen hainbat adibideren berri eman digu. "Donibane Lohitzune ondoko Ahe-





tze herritxoan, esate baterako, hilero egiten da *brocante* bat. Hara hegoaldeko hainbat lagun hurbiltzen dira gauzak erostera, gero hemengo merkatuetan saltzeko". Santiago hainbat *brocante*-tan izan da Frantzian, Alemanian, Belgikan eta Holandan, eta beste adibide bat

moduan Belgikako Temploux herritxokoa ipini du. "Egun eta gau bitan zehar dago zabalik, eta 1.500 erakustoki baino gehiago ditu". Frantziako Lille hirikoa handiena omen da, 10.000 erakustoki dituena.

Baina ez dago azoka handietara joan beharrik, edozein herritan edo auzunetan

arrunta baita auzokideek behar ez dituzten gauzak etxe aurrean salgai jartzea, adibidez, herriko jaiak direnean.

Ohiturarik eza

Ahaleginak egiten ari dira ohitura hau gure inguruan zabaltzeko, eta *brocante*-ak azoka txikiak bihurtu dira. Hala, Mungian nahiko errotuta dago ohitura hau, eta Loiun aurten egin da lehenengo aldiz. Derion orain dela zazpi urte hasi ziren egiten, eta azoka urtean bitan antolatze-ko asmoa dutela adierazi dute arduradunek: bata udan, eta bestea neguan.

Nolanahi ere, azoka txikiek arazo nagusi biri egin behar diete aurre. Hasieran esan den moduan, ez dugu gure gauzak salgai jartzeko ohiturarik eta, gainera, hala egiteak lotsa apur bat ere ematen digu. "Era berean, eguraldia beste oztopo bat izan daiteke, aurretik ez dagoelako jakiterik euririk egingo ote duen. Baina kontuan hartzekoa da European oro har eguraldi kaxkarragoa egiten duela, eta normaltasunez hartzen dela. Euria bada, olana bat ipini eta kito. Berton ere ohitura hartu beharko genuke".

AZOKA TXIKIA DERION



Sollube kalean
10:00 /14:00

Saldu, erosi,
trukatu

gura baduzu
erdu

Lekua gura badozu eman izena:

3 € / 2 m.ko postua. (gehienez 3 postu)

tfnoa: 630 55 02 16 / 695 70 22 02 (10:00/14:00)

txoriberri.ke@gmail.com

informazioa: www.txoriberri.blogariak.net



Taberna
kolaboratzaileak:

Alboka
Devons
Adarve
Trippy
Sugoi
Haizea
Pozgarri
Amaiketako
Nagusien etxea
Bizkargi
Mendia



Derio



Giza mosaikoa eta *flashmob* bat

Lagatzu Zamudioko euskera alkarteak Lagatzu Eguna – Euskal Jaia egingo dau ekainaren 29an. Bilgune bihurtu dan ekintzea da, antolatze-beharretan herriko alkarte gehienek hartzen dabelako parte. “Emon hegoak euskereari” lelotzat dauala, Lagatzu Eguna – Euskal Jaia oso erakargarriak izango diran barritasun nagusi bi ekarriko deuskuz aurten.

Aurreratu deuskuen moduan, Agirre Lehendakaria plazan, giza mosaiko bat osatuko dabe. “Han biltzen dan bakotxak kartoi mehe bat eroango dau, eta kartoi guztiak batuta aurtengo edizinoaren leloa osatuko dogu. Argazkiak aterako dira eta mosaikoa zerutik be grabauko da. Helikoptero bat erabiliko da horretarako. Alkarte bakotxak leloaren letra bat osatzeko ardurea hartuko dau”.

Agirre Lehendakaria plazatik Leizaola plazara joango dira kalejiran eta bertan *flashmob* bat egingo dabe. Eskolako umeek eta gurasoen alkarteak flashmobaren koreografia asmatuko dabe eta

*Helikoptero
bat erabiliko
da irudia
zerutik grabetako*

Lagatzuko webgunean jarriko dabe ikusgai (aikor.com/txokoa/lagatzu/), parte-hartzaileek dantzea ikasi dagien. Gainera, entsegu orokor bat be egingo da. Bideo bat editatuko da, eta, bertan, mosaikoa eta flashmoba jasoko dira.

500 lagundik gora

Egun horretan egongo diran ohiko ekintzen artean merezi dau herri bazkaria aitatzea. Herri bazkaria eskola zaharreko patioan egingo da, eta, aurreko urteetako parte hartzaile kopuruari erreparatuta, antolatzaileek bertan jarriko dan karpapean 500 lagundik gora batzea espero



dabe. Bazkalostea Taberna Ibiltariak giro-tuko dau. Herriko alkarteek harekaz bate-ra abestuko dabe. “Euskerea kalera ateratea dogu helburu, eta euskal giroan jai-egun bat ospatu”.

Bestalde, Lagatzu euskera alkarteak ekitaldi sorta zabala antolatu eban maiatzean, Euskal Astearen haritik. Beste batzuen artean, ibilaldiak egin ziran, erre-fuxiatuen kanpamentuen bizi diran sahararren egoerea ezagutzeko aukerea euki eben, eta Gazta zati bat dokumentala emon zan. Antolatzaileen esanetan, guztiak oso ekintza arrakastatsuak izan ziran eta aurreikuspenak bete egin ziran

AM
FORMACION Y TRADUCCIONES

www.am-formacion.com info@am-formacion.com

Garaioitza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 64 09

Errementeri 16
48150 SONDICA
T: 94 453 64 08

INGURUEN ESKOLA
-MATEA GUSTIAK
-AUTERKETA GIZUZIALA
-GUTIERREZ PRESTAKUNTZA
-ONE TO ONE ESKOLA
-PRESTAKUNTZA ENPRESETAN
-ESKOLAZ KANPOKO KLASEAK
-ITZULPEN ZERBIZIUA

HARATEGIA • URDAITEGIA

VICTOR
ARTESAU-ELABORAZOIA

Okela ekoizten dugu:
odolostek, txorizoa,
bistortia, solomok...

Plater aurrekoiznatu

Goiri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17

Consulting
Gondika s.l.

Sabin Askolizaga
Aseguru agentzia
Allieriz
609 473 746

Mitxaris, 6 beheko
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

Gazteak atzerrira: joan ala bota?

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Gustagarria da atzerrira joatea, begiak lur berrietan irekitzea, belarrietan urruneko doinuak entzutea. Baina gogorra da langabeziak herritik botatzea, diruagatik lagunak eta adiskideak galtzea.

2013ko maiatzaren hasierako datua da: 2012an gure Autonomia Erkidegoko 10.633 gaztek jo duela atzerrira, askok lanik ezagatik. Krisi ekonomikoaren barruan bizi gara. Erregea ere krisian bizi da **ze**, elefante-okela jateko eta deutschlandiako haragia dastatzeko Botswana-ra

joan behar izan du. Han egin ditu afaria eta safaria, arma beroak erabiliz. Bestalde, azken hamarkadan Euskadin zazpiz biderkatu da atzerritarren kopurua. Eta oraindik gora doa. Zelan izan liteke hori?

Nire aspaldiko lagun batek taberna berria zabaldu du. Behargin bi nahi ditu. Asko etorri zaizkio lanpostua eskatzera. Arazo larria sortu zaio: euskara dakitenak kontratatu gura ditu. Hauek 752 euro eskatzen dizkiete; Portugalekoek –lñaki Eguskizaga adituak dio “Os recibos verdes”en menpe daudela, hau da, eskubiderik bako langileak direla– 540 euro; Perukoek 400 euro Nola jokatu? Ez du merezi euskaragatik 200 edo 300 euro gehiago ordaintzea?

Kapitalismoa dirua egiteko makina da, bihotzaren ordeztu mikrotxipak dituen. Itxuraz, euskaragatik 300 euro xahutzea interbentzionismoa izango litzateke. Hala ere, kapitalak onartzen du interbentzionismo hori bankari dirua emateko orduan. Beraz, bizi garen sisteman euskaragatik 300 euro gehiago ordaintzea txotxolokeria litzateke. Hau mixeria!

Europar Merkel karua; Errusian Putin handia eta Cuban Castroenteritisa. Hemen, itxuraz, sortu, asmatu, egin egin behar da **bidia**, geuk **geuria**.

(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa



EGUNEKO MENUA

lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorrena 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

Nire Autocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Móbilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, orokortasun
Asanblaje komandotekak
Mantentze garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Olinu asanblaje garbiketa
Ikastetxeak
Zabon bilketak

Besaide Plaza, 1 - Bº Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Bar TRIPPY

ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun
eta futbolinean jokatu, etorri zaitzez Trippya, Deriora

Behoko Kalea Bajoa
DERIO

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERO GOZOGINTZA APARTEA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98
Fax 94 454 14 18

Mungialde etortidea, 25
48160 DERIO

harategia - urdalategia

MIGUEL

ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA

Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

Etxeko sukaldaritza

Krema frititua

*Maite Lekerika, sukaldaria***Osagaiak (lau lagunentzat):**

- Litro erdi esne
- 100 g azukre
- 50 g maicena uruna
- 25 g gurin
- Lau gorringo
- Kanela-zotz bat
- Urina
- Arrautza bi
- Ekilore-orioa

**Prestateko area:**

Gorringoak, azukerea eta maicena urina nahasi eta ondo irabiauiko doguz. Kazuela baten, esnea kanelagaz egosiko dogu. Bero dagoala, apurka-apurka botako deusagu aurreko nahasketeari, eragiteari itxi barik. Su motelean ipiniko dogu, beti eragiten, eta gurina botako dogu. Ondo eragingo dogu. Loditzen danean, surtatik kendu eta azpil batera botako dogu. Azpila bustita egon beharko da.

Nahasketea hotzitzen danean, laukitxoetan ebagiko dogu. Laukitxo bakotxa urinetik eta arrautzatik pasauko dogu, eta oriotan fritituko dogu. Frijitu ostean, kanela eta azukerea botako deuseguz ganetik.



Tomate-purea

Osagaiak:

- Kipulea (6 koilarakada)
- Kilo bat tomate
- 8 koilarakada orio
- 60 g arroz
- Bezperako ogia (frititua)
- Gatza

Prestateko area:

Kipulea fritituko dogu. Gorritzen hasten danean, arroza botako dogu. Bost minutu pasau ostean, tomatea (zatituta) botako dogu. Bost minutuan eukiko dogu erre-gosten eta, ondoren, ura botako dogu. Egosten 35 minutuan izango dogu. Surtatik kendu eta ondo irabiauiko dogu. Gatza eta ogi frititua (zatituta) botako deusaguz atze-nean.

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

Lasai

Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabarri, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

KAFETEGIA

IAZI
JATETKEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel: 944 54 29 56

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA

Unisex ileapaindegia
Estetika
Ordutegi jarraitua
Laser-depilazioa

Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

Carnicería
Charcutería
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA, 2
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO

Eskerririk asko
etortzeagaitik

MARMOLGINTZA
GOYO

SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERIAK

Ugaldeguren 1 ind, 10-8 nabes
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Fax: 94 454 50 63

euskal herriko d-generazioa

aritz eta nagel
aikor! 2013ko maiatzaren 21ean



Hileko galdera

Zelako eragina dute guran koloreek?

Koloreek emozioak sortzen dituzte guran, eta gure aldartea haien eraginez alda daiteke. Orokorrean, kolore beroak estimulatzaileak dira eta optimismoa sorrarazten dute. Hala ere, oldarkortasuna ere helaraz dezakete. Hotzak diren koloreek lasaitasuna adierazten dute eta horregatik nagusi dira ospitaleetan eta mediku-kontsultetan. Ikerketa batzuen arabera, kolore beroek areagotu egiten dute bihotz-erritmoa; kolore hotzek ez bezala.

Sudokua

			2	8				
		4	7	9			1	
					4			
8					9	5		
				5				3
2		3						1
	4							
5							2	7
	9	8	1	4			3	

5	3	6	2	4	1	8	9	7
7	2	4	8	6	9	3	5	1
8	9	7	3	5	2	4	6	1
1	8	6	9	7	4	3	5	2
3	6	9	5	1	2	7	8	4
4	7	3	2	6	9	8	1	5
2	5	3	8	1	4	9	7	6
6	1	8	5	9	6	7	2	3
9	4	3	8	2	5	1	6	7

eleizalde
kafetegia

Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean)

48160 DERIO
Tel.: 94 454 52 88

TURREGOTTI
JATETXEA

Laura eta etorbidea, 27
48180 Leku-Bizkaia
T-Faxia: 94 453 24 40
restauranteturregotti.com

elekma

URRATZEN BAT DUTEN ETXETIKO ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISTAK ETA ETXETIKO ELEKTRIKO TOSKAK

lehenengo markak • Prestakari onak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Tasari etorbidea, 25-3 N • 48180 Leku
T: 944 590 232
www.elekma.es

Erakusketak

Sondika

- > Udal ikastaroak. Ekainaren 4tik 26ra, Erakusketak Aretoan.

Derio

- > Aeromodelismo. Ekainaren 1ean, 17:00etan, Seminarioan. SUBYKE klubak antolatua.
- > Ibaialde. Ekainaren 6tik 13ra, Kultur Birikan.
- > Eskola-agenda. Ekainaren 10etik 19ra, Kultur Birikan.

Hitzaldiak

Derio

- > "Beituk 10 urte bete ditu". Ekainaren 12an, 19:30ean, Kultur Birikan. DerioKOMunikazioak antolatua.
- > *Manuela*, Inma Roizen liburua. Ekainaren 14an, 20:00etan, Kultur Birikan. DerioKOMunikazioak antolatua.

Lezama

- > "Zahartze osasuntsua". Ekainaren 20an eta uztailaren 11n, 17:30ean, Adintzuen etxean.

Irteerak

Sondika

- > Itxina. Ekainaren 16an, gurasoen elkarteak eta Udalak antolatua. Izena ematea: ekainaren 13ra arte, liburutegian.

Zamudio

- > Peña Karria (Valderejo). Ekainaren 9an, Arroeta mendi taldeak antolatua.
- > Ondarroa-Lekeitio. Ekainaren 23an, Arroeta mendi taldeak antolatua.

Lezama

- > Gorbeia (gaua aterpetxe batean emango dute). Ekainaren 8an, Gailur mendi taldeak antolatua.
- > Alto Carrión (Palentzia). Ekainaren 21etik 23ra, Gailur mendi taldeak antolatua.

Larrabetzu

- > Mendi martxa. Ekainaren 30ean, 08:00etan, plazan.

Jaiak

Derio

- > Eskolako jaiak. Ekainaren 21ean.
- > San Joan sua. Ekainaren 23an, San Migel plazan.



Zamudio

- > Eskolako jaiak. Ekainaren 22an.
- > San Joan sua. Ekainaren 23an, Bidekoetxe parkean.
- > San Zenon. Ekainaren 23an, Galbarriatu auzoan.

Lezama

- > San Joan sua. Ekainaren 23an, frontoi atzeko landan.

Larrabetzu

- > San Antonio. Ekainaren 13an, Elexaldean.
- > Eskolako jaiak. Ekainaren 14an eta 15ean.

Kirolak

Sondika

- > Kirolari ateak zabalik. Ekainaren 2an, kiroldegietan.

Derio

- > Kirolari ateak zabalik. Ekainaren 2an, kiroldegian eta frontoian.
- > Kirol anitzeko eta psikomotrizitate kanpusak. Ekainaren 24tik 28ra, gurasoen elkarteak antolatua. Izena ematea, ekainaren 21era arte: jokatz.com.

Zamudio

- > Kirolari ateak zabalik. Ekainaren 1ean eta 2an, Bidekoetxe parkean eta frontoian.
- > San Pedroetako plater-tiroko saioa. Ekainaren 22an, 10.00etan, Teknologia Parkeko tiro zelaian. Ehiza elkarteak antolatua.

Musika

Zamudio

- > Zamudioko Kamara Korala. Ekainaren 29an, 20:00etan, Pi elizan (Bartzelona).



Lezama

- > Ekidazu. Ekainaren 2an, 20:30ean, El Redentor elizan (Getxo); ekainaren 16an, eguerdian, Lezamako eskolan; ekainaren 23an, iluntzean, Lezaman.

Larrabetzu

- > Gari. Ekainaren 16an, Hori Bai Gaztetxean.
- > Musika eskola. Ekainaren 18an, 19:30ean, Andra Mari elizan.

Bestelakoak

Derio

- > Dantzaldia. Ekainaren 16an, 19:00etan, kanpoko frontoian. Nagusien elkarteak antolatua.
- > Agenda 21. Ekainaren 19an, 19:30ean, Kultur Birikan. DerioKOMunikazioak antolatua.

Larrabetzu

- > Udalekuetan izena ematea. Ekainaren 3tik 7ra, Anguleri kultur etxean.

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinea 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

BIXTITEGIA - ERLOJU-DENDA
Ruben
Lehendakari Leizola Plaza, 5 - Tel.: 94 452 14 49
Zamudio (Bizkaia)

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA
94 452 1616
94 452 1624
Pol. Torrelagoiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA
ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

Eistazu!

TXORIERRIKO BERBALAGUNAK

txorierri.berbalaguna@gmail.com Informazio gehiago: 635.75.35.95

Euskaldun zaharrak

Euskaldunak

Euskaldun berriak

IZENA EMATEKO:

Txorierriko Mankomunitatea: 94.454.0350

Udal euskaltegia: 94.454.0062

Txepetxa euskaltegia: 94.454.3967

Afarian Eskaladan Museoan Perretxikotan Sukaldatzen Padelean Talo egiten Ikasten



LAGUNTZAILEAK

BABESLEAK

ANTOLATZAILEA





WWW.NEXIS.COM
ARRETA ZERBITZUA
946 941 000
NEXIS@NEXIS.COM

ZURE INTERNETeko OPERADOREA TXORIERRIN



KALITATEZKO INTERNET, EDOZEIN LEKUTAN



~~6MB~~ → 10MB
9,95 €-tik

Behar izanez gero

+Routerra → 29€

+Ahots-egokigailua → 39€

Alta: → 85€

PREZIO
BEREZIAK
AUZO-
KOMUNITATEENTZAT

%15eko
deskontua alta egitean,
kupoi hau aurkeztuta

